

Txostena

**Feminismoa, indarkeria matxistak eta esku-hartzea
Hausnarketa, eztabaida eta ekintza feminista**

ERAIKIZ 2017



Txostena Feminismoa, indarkeria matxistak eta esku-hartzea Haunarketa, eztabaida eta ekintza feminista

ERAIKIZ 2017

2017 proiektua
Feminismoa, indarkeria matxistak eta gizarte esku-hartzea
Interseksionalitaterako igarobidean.

Koordinazioa: Aitziber Bañuelos eta Blanca Garate

Erredakzioa: Ester Escudero eta Aitziber Bañuelos

Hitzulpena: Ostebi Bañuelos Ganuza

Erakunde sustatzailea: Eraikiz Kolektiboa

www.eraikiz.org

info@eraikiz.org

Tlfn. zk.: 665731943

Bilbo/ 2017ko urtarrila



* Lan honen edozein erabilpen iturriaren aipamena eskatzen du

Aurkibidea

Sarrera	Pág. 7
Metodologia	Pág. 9
Intereseko datuak	Pág. 10
Txostena	Pág. 11
Gogoeta orokorra	Pág. 11
1. Feminismoa interpretazio marko bezala	Pág. 11
1.1. Teoria feminista gizarte esku-hartzean	Pág. 12
1.2. Gizarte esku-hartze feminista	Pág. 12
1.3. Ondorioak pertsona profesionalengan	Pág. 14
1.4. Ondorioak esku-hartzean	Pág. 14
1.5. Ondorioak erakundeetan eta gaur egungo egoera	Pág. 15
1.6. Feminismora igarotzeko zailtasunak	Pág. 17
1.7. Aurrera egiten joateko urratsak	Pág. 18
2. Emakumeen kontrako indarkeriarekiko esku-hartzearen ardatzak	Pág. 21
2.1. Indarkeria matxistak	Pág. 21
2.2. Indarkeriaren dimentsioak	Pág. 22
2.3. Gizarte esku-hartzea eta honen lana indarkeriarekiko	Pág. 23
2.4. Osoko Legearen inguruko hausnarketa	Pág. 25
2.5. Interseksionalitatea	Pág. 26
2.6. Prebentzioa	Pág. 28
2.7. Esku-hartzea	Pág. 29
2.8. Gizarte esku-hartzea eta ekintza komunitarioa	Pág. 30
2.9. Eta gizonetikiko lana?	Pág. 31
2.10. Aurrera egiten joateko urratsak	Pág. 31
3. Gizarte esku-hartzearen profesionalak indarkeria matxisten aurrean	Pág. 34
3.1. Arazoaren edo konponbidearen parte gara?	Pág. 34
3.2. Alderdi bezala jarrera hartze bat izan beharko genuke?	Pág. 34
3.3. Lan mahaietan niterlokuzio eta aholkularitza organoa izateko zilegitasuna daukagu?	Pág. 35
4. Ondorio eta proposamenak	Pág. 38
5. Eranskina: Marta Dolado eta Teres San Segundoren ekarpena Osoko Legearen inguruan	Pág. 41

2016ko irailaren 17an burututako Mahai-inguru Topaketan eta Feminismoa, indarkeria matxistak eta gizarte esku-hartzea Jardunaldian parte hartu eta lagundu duten profesionalak:

Leire Idarraga
Ibai Fresnedo
Shaila Fernández
Tamara Clavería
Ane Labiano
Izaskun Jiménez
Paciencia Okon
Ana Belén Seoane
Paula Castro
Javier Villanueva
Saioa Gil
Ianire Subinas
Jaione Valdés
Aida del Río
Olatz Ajuriaeusokoa
Ainara Vidal
Sonia Sedano
Ester Escudero
Blanca Garate
Ostebi Bañuelos
María Mitxelena
Josu Perez
Aitor Azkue
Monike Gezuraga
Lola Fernandez
Israel Alonso
Inge Axpe
Arantxa Pesquera
Leticia Fuentes
Maitane Muñoz
Mila Amurrio
Marta Dolado
Arantxa Hergueta, La Posada de los Abrazos

Idatzizko kolaborazioa helarazi diguten profesionalak:

Itziar Cantera, Deusto-San Inazioko Modulu Psikosoziala
Elda Uribelarrea, Lanbroa Feminista Kolektiboa
Úrsula de Santa Cruz
Alessandro Bau
María Viadero, Mugarik Gabe
Setem Hego Haizea
Teresa San Segundo, Zuzenbide Zibileko Irakasle Titularra, UNED

Eskerrak guztiei zuen on egite, konpromiso eta batez ere zuen eskuzabaltasunagatik.

Sarrera

2016 urtearen inguruko aipamen txiki bat eginez hasiko gara, zeinean datu ofizialen arabera, 44 izan izan euren bikote edo bikote ohien esku erailak izan ziren emakumeak. Txosten hau egiterako datan, 2017ko urtarrilaren 20a, 4 emakume izan dira erailak.

Bada gaizki egiten ari garen zeozer. Gizarteak ez du indarkeria matxista emakumeen bizitzarekiko konpromiso hartzen euren eskubide eta askatasunarekiko. Eraikizetik egokia ikusten dugu gai honen inguruan gizarte esku-hartzeak duen paperaren inguruko hausnarketa egitea. Pentsamendu kritiko eta jarrera proaktibo batetik abiatutako azterketa bat, alegia. Ekinbide feminista oinarritzat hartuta proposamenak egiteko unea da, esku-hartzearen inguruko bestelako paradigma batzuetan sakonduko duten proposamenak, interseksionalitatea kasu, estrategia berrietan eta metodologia horizontaletan, hau guzti hau sororitate dosi handiarekin.

Gizarte esku-hartzetik burutzen dugun lana eraldaketa sozialerako funtsezko balioa duenez erabat konbentziturata gaude. Baina une honetan ba du oinarritzko faktore bat faltan duena: feminismoa hartzea jarduten den errealitatearen interpretazio marko bezala, alegia, esku-hartzea justizia sozialaren helburura eta bizitzaren eta pertsonon jasangarritasuna gure lanaren erdigunea izan behar direla dioskun etika feministara bideratuko duen pedagogia feminista.

Alde batetik, pertsona profesionalek, euren ongizate eta bizitza maila mantentzearen alde. Emakume eta pertsona adingabeek, euren familiek eta komunitateek, esku-hartzearen bazterretatik honen erdigunerako igarobidean, benetako emantzipazio prozesuak eraginkortzearen alde. Esku-hartzeak, pribilegioak deseraikitzen dituen, errekursoak eta ondareak demokratizatzen dituen eta bertikaltasuna horizontal bilakatzen dituen feminismoarako biraketa bat eginez, boterea boteretze bilakatuko du.

Esandako guzti horrengatik hausnarketaren abenturara salto egiten dugu eta prozesu hori zelan bultzatu eztabaidatzera. Bide hau elkarbanatu behar genuela zen geneukan segurtasun bakarra, eta genuen zalantza, zein puntura arte profesional ezberdinek euren denbora honetan inbertitzeko prestutasuna izango zuten.

Errealitatea da burututako edozein jardueratan parte izan duten profesionalek umiltasun osoz egin dutela, eskuzabaltasunez eta, batez ere, konbentzimendu eta motibazio izugarriekin. Berrehundik gora izan dira proiektu honetan eta dokumentu honen sorkuntzan parte hartu dutenak, alegia, gizarte esku-hartzearen alderdiari buruz hitz egin ahal izateko zenbateko nahikoa adierazgarria.

Parte-hartzeaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmentzea kontsentsua izan dela ezaugarri nagusia hausnarketa eta eztabaidarako planteatu ditugun gai guztietan, kontsentsu kasik erabatekoa. Eman diren ezadostasunak ez dute proiektuaren ezta dokumentu honen oinarri diren ardatzak kolokan jartzeko indar nahikoa izan. Are gehiago, esan genezake ideia osagarritzat hartu ditzakegula, kontraesankorrak baino, eztabaida bera aberastuz eta dokumentu berau osatuagoa eginez.

Esan genezake gure sektorearen bilakaerarekiko ezin egon oso handia badagoela, eta sare mailako eta elkarlanean oinarritutako lan bat burutzeko interes izugarria ere bai, maila ezberdinetan kokatutako aldaketak sustatu helburuz:

- Entitateen egituretan.
- Profesionalean, bere kokagune zein jarduera profesional beran.
- Pertsonen eta komunitateen laguntzan, azken finean, esku-hartze prozesuetan.

Dokumentu honek profesional ezberdinek emandako iritziak, elkarbanatutako hausnarketen eta eztabaiden ondorioak, zazpi profesionalak bidalitako idatzizko kolaborazioak, burutu ditugun 108 inkesten emaitzak eta 2016ko azaroaren 11n aurrera eramandako 9 talde dialogikoen ondorio nagusiak konpromiso osoz jasotzen ditu.

Informazioaren lanketa modu bateratuan burutu dugu dokumentu bakar bat sortuz, zeinean erantzi izan ditugun parte-hartze espazio ezberdinetan agertzen joan diren ideia, hausnarketa eta proposamen ezberdinak. Txosten honetan eskaintzen dugun tamainako corpus teorikoaren sorrera ahalbidetzeko, hasiera bertatik proiektua ardaztu duten hiru gai zehaztu genituen, halaber profesionalen ekarpenetarako gidoi bezala balio izan dute:

- Feminismoa gizarte esku-hartzearen interpretaziorako marko teoriko bezala.
- Indarkeria matxistak gizarte esku-hartzearen oinarritzko zeregina bezala.
- Gizarte esku-hartzea indarkeria matxisten aurrean, bai profesional zein eremu bezala.

Garrantzitsuak iruditu zaizkigun bi datu ere nabarmendu nahiko genituzke:

- Profilak, rol profesionalak eta eremuak gure sektoreak duen ainako aniztasuna izan dute.
- Feminismoaren inguruko ezagutzak ere erabat anitzak izan dira, oinarritzko ezagutzetatik abiatuz, bai formakuntza teorikoan zein esperientzian oinarritutako ezagutza aurreratuetara.

Parte-hartzea esandako guztia lortze aldera sustatua izan da. Horri zegokionez helburu argiak genituelarik:

1. Eztabaida gizarte esku-hartzeko sektoreko ahalik eta profesional gehien inplikatur ematea beharrezkoa zen, baita ahalik eta eremu, rol eta profil profesional eta esperientziak barnebildu. Guztiongan eragina duen gaia da eta ez bakarrik berdintasunaren edo indarkeria matxisten inguruan lan egiten dugunongan. Eremu bezala eta gure jakituria profesionaletik eman behar den eztabaida da hau, dela zein dela garatzen dugun rol profesionala eta gizarte esku-hartzearen alderdi ezberdinetako edozeinetan (familia, droga-mendekotasuna, gizarte bazterketa, etxegabetasuna...).
2. Proiektuak helburu bikoitza lortzera bideratuta zegoen: hausnarketa eta eztabaidarako espazio bat eskaini eta, aldi berean, kontzientziaziorako eta formaziorako bide izan zedin beharrezkoa zen. Alde batetik ezinbesteko iruditzen zitzaigun feminismoa eta indarkeria matxisten eta profesionalen artean existitzen zen zuloa jakituriak eta kontzientziaz betetzea; bestetik bagenekien jakituria gutxien zutenen aurreikuspenak bete zituela eta, alderantziz, formakuntza edo elaborazio pertsonal edota profesional handiago zutenek euren burua gainontzeko kideen formatzaile bezala ikusiko zutela. Baina horrela dago gure eremua eta elkartasunean eta sororitatean oinarritutako elkarrekiko lidergo kolektiboan oinarritutako ezagutza hori eraikitzekeo esfortzu bat egitearen beharrean gaude.

Txosten hau prozesuan parte hartu duten gizarte esku-hartzeko profesionalen (gehiengoa emakumeak: %88 emakumeak eta %12 gizonak) esperientzia eta jakituria biltzeko grinarekin eratzen da, euren historia profesional eta pertsonalean, interseksionalitatean eta feminismoan oinarritutako marko teoriko propioa garatu ahal izateko gakoak aurkituko baititugu.

Metodologia

Txosten honen lanketan erabilitako metodologia batez ere izaera kualitatibokoa izan da. Egindako informazio bilketa Feminismoa, Indarkeria Matxistak eta Gizarte Esku-Hartzea proiektuaren garapenean zehar, 2016. urtean, burutu ditugun bost jarduera mota ezberdinen bidez egin dugu. Naiz eta, hasiera batean, jarduera ezberdinetako bakoitzean jaso beharreko edukien helburua proiektua beraren hobekuntzara besterik ez zegoen zuzenduta, jasotako ekarpenen aberastasunak eta hausnarketen sakontasunak txosten honen garapenera eraman gaitu ezinbestean. Lehenago esan dugun bezala, hau funtsezko hiru faktoreren ondorioz gertatu da: lehenik, parte hartu duten profesionalen kopurua eta bere aniztasuna, bigarrenik, heldutako edukien inguruan eman den kontsentsu maila altua eta, azkenik, gizarte esku-hartzearen eremurako izan ditzakeen ondorio garrantzitsuak.

Jarduerak helburu zehatz bat zuten, ezarritako hiru ardatz tematikoen eta hauek euren artean sortzen dituzten bidegurutzeen inguruan hausnartu eta eztabaidatzea, eta hauetatik sortzen dien harremanek gizarte esku-hartzearen profesionalen eguneroko lanean gure sektorean izan ditzaketen inplikazioak. Jarduerak ondorengoak izan ziren:

Dokumentazioa: Proiektuaren diseinurako dokumentazio bilketa eta azterketa, baita bakarkako (galdetegia eta kolaborazioak) zein talde mailako (mahai-inguru topaketa eta jardunaldia) jardueren edukiak zehazten joateko ere. Lanketa hau ezinbestekoa zen, izan ere, ez zen existitzen eztabaidarako hiru eremu hauek lotzen dituen inongo marko teoriko propiorik. Helburu nagusia eremu horietako bakoitzean sakontzea zen, euren arteko loturak bilatuz, eztabaida modo ordenatu, koherente eta, batez ere, argitzailean bideratu ahal izateko. Ondorio bezala, eztabaidari begira, Dokumentu Marko eta Lan-Koaderno bana buru ziren.

Mahai-inguru topaketa, 16/09/17: Lanketa-mahai honen inguruan 23 profesional bildu genituen, alegia, gizarte esku-hartzetik, berdintasun programen sustapen eremutik, hezkidetzatik, etab. hauen diseinu, garapen eta ebaluaketarako. Honen helburua proposatutako gaien inguruko lehen hurbilketa bat burutzea zen, honekin gizarte esku-hartzearen eremuko profesionalen arteko eztabaida eta hausnarketa erraztuko zuen ponentzia-dokumentu bat sortu ahal izateko. Oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun gizarte esku-hartzearen eta feminismoaren loturaren inguruko ikuspuntu ezberdinen elkartrukea eta ezinegon, aurreikuspen eta esperientzia ezberdinak entzutea. Honen emaitza azaroaren 17ko jardunaldian argitaratu zen ponentziaren sorrera izan zen eta Profesionalentzako Inkestan bildutako gaiak identifikatu ziren.

Profesionalentzako inkesta: Erreminta hau sortu genuen ahalik eta iritzi eta hausnarketa kopuru handiena bildu ahal izateko proiektuko oinarritzko aspektuen inguruan. 108 pertsonak hartu zuten parte.

Hausnarketa eta lanketa jardunaldia, 16/11/11: Topagunerako espazio bat izan zen, zeinean 150 pertsona parte hartu zuten, bai bere diseinuan, garapenean, zein ebaluazioan. Jardunaldi irekia izan zen, naiz eta batez ere gizarte esku-hartzeko profesional zein ikasleei zuzendutakoa izan. Jardunaldian zehar 9 tailer dialogiko burutu ziren ondorengo gaietan ardaztuak: 1) Feminismoa gizarte esku-hartzeko marko teoriko bezala; 2) indarkeria matxistak gizarte esku-hartzean; 3) gizarte esku-hartzearen eremua eta honen profesionalak indarkeria matxisten eta feminismoaren aurrean.

Idatzizko kolaborazioak: 7 izan dira idatzizko kolaborazioen bidez parte hartu duten pertsonak. Hauetariko bakoitzak bere ekarpenak burutzeko askatasun osoa izan du.

Parte hartzaile guztien ekarpenek argudio bakar eta komun bat osatu dute, zeinak eztabaidarako eta gizarte esku-hartze feministaren eraikuntzarako bidea irekitzen duen dokumentu bat osarazi duen.

Egiletza bakarrik izendatzen da kolaboratzaileek burututako idatzizko ekarpenetatik transkripzio literal bat ematen den dokumentuaren parte horietan.

Mahai-inguru topaketetako zein idatzizko kolaborazioetan parte hartu duten pertsonen hautaketarako, proiektuaren ardatzekin lotura lukeen ibilbide pertsonal zein profesionala oinarri hartuta burutu da.

Gure aldetik hausnarketa eta lanerako proposamenekin harremana duten adibide praktikoak gehitu ditugu, txosten honetan elkarbanatuko ditugun argudio eta ideien ulermena erraztuko duten argibide bezala.

Parte-hartzearekin lotutako intereseko datuak

Ondorengo datuak txosten hau sortzeko ardatza izan diren 2016an buruturiko jardueren buruzkoak dira: mahai-inguru topaketan eta jardunaldian parte hartutako talde dinamizatzaile eta parte hartzaileak, inkestetako parte hartzaileak eta idatzi bidezko kolaboratzaileak.

Talde dinamizatzailean Eraikiz Kolektiboko 9 pertsona eta UPV/EHUko 4 pertsona parte hartu dute; mahai-inguru topaketan 23 pertsona profesional parte hartu zuten. Bai bata zein bestean %85a emakumezkoak izan ziren eta gainontzeko %15a gizonak. Jardunaldian 150 pertsona parte hartu zuten eta profesionalentzako inkestean bidez beste 108, hauetan bietan emakumezkoak %90a eta gizonetzkoak %10 izan zirelarik. Bukatzeko, 7 izan dira idatzizko kolaborazioak bidali dizkigutenak (%85 emakumezkoak eta %15a gizonak).

Garrantzizkoa iruditzen zaigu gizonetzkoen parte-hartze eskasa nabarmentzea, %12ko batzbestekoarekin jarduera guztiak kontutan hartuta, emakumeena %88ra heldu den bitartean. Honek argi usten digu zein izan behar den egin behar dugu lana, bai genero perspektiba, bai teoria feminista, gizarte esku-hartzeko komunitate guztiak bereganatu dezan.

Jatorria: Batez ere Bizkaitarra izan da, naiz eta Gipuzkoa, Araba, Madril eta Valentziako ordezkari ere egon den. Bizkaiari dagokionez %43a Bilboko izan da, gainerako %67 bitartean beste 31 udalerriri dagokiolarik, batez ere Getxo, Barakaldo eta Santurtzi, bakoitzak %6arekin alegia.

Eremu profesionalak: Nabarmentzekoa da Gizarte Hezkuntzaren eremua parte hartze handien izan duen eremu bezala, gizarte langileez eta gizarte integratzaileez jarraituta. Jardunaldian gizarte integratzaileekin lotutako ikasleak ere parte hartu zuten.

Txostena

Gogoeta orokorra

Garrantzitsua da esaten hastea feminismoa, emakumeen aurkako indarkeria eta gizarte esku-hartzea bezala kontzeptuak aztertzea berezko zailtasun handia duela. Berezko errealitatea da kontzeptu hauen banan banako deskribapena zaila da berez euren esanahien zabaltasunagatik eta hartzen dituzten eremuen aniztasuna dela eta, hortaz, euren arteko bidegurutzean aztertzea oraindik eta konplexuagoa bihurtzen da. Naiz eta modu independentean eta disziplina anitzetatik aspalditik aztertuak izan diren gaiak izan, auren arteko harremana ez da inoiz modu egokian tratatu eta aztertu orain arte.

Modu horretan, ondoren aurkezten den lana, hauetariko eremu batekin edo gehiagorekin harreman zuzena duten profesional ezberdinen iritzi eta pertzepzioak bildu nahi ditu. Euren ekarpena balio izan du kokagune ezberdinetatik abiatuta marko teoriko-praktiko propio bat eraikitzen hasi ahal izateko, gizarte esku-hartzea helmuga feminista batetara bideratzea ahalbidetuko duen marko teoriko-praktikoa, alegia¹.

1. Feminismoa gizarte esku hartearen eta indarkeria matxisten inguruko lanaren interpretazio marko bezala.

1.1. Teoria feminista gizarte esku-hartzean

Parte-hartzaile guztiek bat egiten dute feminsimoa justizia sozialaren sinonimoa dela esatean. Feminismoa teoria bezala, filosofia bezala, gizarte mugimendu bezala, *estatu quoa*, kulturalki, egitura mailan eta sinbolikoan aurrez ezarritako guztia zalantzan jartzen duen zientzia bezala, baita gure egunerokotasunean garena eta harremantzeko modua ere. Feminismoak pausukako, eta ez bat-bateko, aldaketa bat dakar, izateko maduaren, egotearen eta gainontzeko pertsonekin harremantzeko moduaren eraldaketa sakona, alegia. Aldaketa hori gauza txikienetik handienara joan behar da, erdiko maila ezberdinak zeharkatuz. Modu berdinean izan behar da gizarte esku-hartzean ere.

Profesionalek bat egiten dute ere balio patriarkalek giza komunitatea bi polotan banatzen dutela esatean, bata bestearekiko baztertzailak diren bi polo gainera, bata dena ezin da bestea izan, eta alderantziz (emakumea izateak gizona ezin izatea esan nahi du, eta alderantziz). Balio beroriek pertsonen izaera, rol betetze eta bizi-helburu bereiztuak eraikitzeke bi izaera edo nortasun ezberdinetan banatzen dituzte. Harremanak izateko, bikoteak modu behartuan eta asimetrikoan edo hierarkikoan sortzera bultzatzen ditu. Ordena hau egituraren eta alderdi sinbolikoaren indarraren bidez inposatzen du eta, aurreko hori funtzionatzen ez badu, indarkeria zuzenaren bidez. Antolakuntza sistema honek, badu oinarri ideologiko bat hain daukaguna errotuta gure nortasun indibidual zein kolektiboan, ezinbesteko bihurtzen dela gizarte esku-hartzea ulertzeko eta praktikatzeko daukagun moduan zelan gauzatzen den identifikatzea.

Jasotako hausnarketa ezberdinen azterketatik ondorioztatu dezakegu, maila batean edo bestean, profesional guztiek ezagutzen dituztela esku-hartze feministaren onurak. Baina, egun,

¹ Irakurleen ulermena errazteko helburuz, nodoren aurkezten dugun txostena proiektuaren hiru ardatzetan egituratuta aurkezten da: Feminismoa emakumeen kontrako indarkeriaren interpretazio marko bezala, emakumeen kontrako indarkeriarekiko esku-hartzea egituratzen duten ardatzak: Genero indarkeriaren aurkako oso-osoko babes emateko neurriei buruzko Legea Organiko, Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako Lege Organikoa, Emakume eta gizonen berdintasunerako Euskadiko Legea, eta Formazio eta kontzientziatzeak. Profesionalak emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean.

gizarte esku-hartzearen eremua feminista ez dela ere. Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea parte hartu duten pertsonen aburuz, eremu profesionalean ez dela existitzen ez definizio ezta inongo planteamendu teoriko-praktikorik “gizarte esku-hartze feminista” bat nolakoa izan beharko litzatekeenaren inguruan.

Elda Uribelarrearen kolaborazioan, bere partaide den Lanbroa kolektibotik hitzegiten diguna, alderdi honi egiten dio aipu:

“Feminismoa ezagutua da, batez ere... salaketarako mugimendu sozial eta politiko bezala, eta hortik lerrokatu egiten da, ahaztuz, izan ere, horrela dela filosofia eta paradigma androzentrikotik at dagoelako, errealitate sexistaren ulermenerako parametroak eskaintzen dituelako, zeinetatik lehen aipatutako alternatiba sozial eta politikoak eskainiz.

Eta hau da gizarte esku-hartzearekin eta hirugarren sektorearekin duen lotura. Zergatik onartzen dira jendartearen interpretaziorako bestelako filosofia eta eredu batzuk eta ez da onartzen feminismoa? Zergatik sozialismoa, ekologismoa, kristianismoa, gutxi batzuk aipatzearen, erreferentziazko eredu interesgarritzat hartzen dira eta ez da maila berean hartzen, edo horrenbeste kostatzen da hartzea, feminismoa? Hau da erantzun beharreko galdera.

Gure burua feministatzat hartzen dugun pertsonontzako, emakumeontzako batez ere, badakigu ez dela erraza gure burua horrela aurkeztea eta, batez ere, ez dugula gure ekinbidea ulertzen hortik garatzen ez badugu.”

1.2. Gizarte esku-hartze feminista

Profesionalek faltan botatzen dute berdintasunean, indarkeria matxistetan eta feminismoan formazioa (goitik beherako ordenean eremuaren ezagutza mailaren arabera). Horregatik atera zen lehenetariko planteamendua, hausnarketa prozesu osoan zehar hamaika aldiz errepikatua zena, formazioa eskaera izan zen, kontzientziaziorako² eta indarkeria matxistekin eta feminismoarekin lotutako konpetentzien lorpenarekin lotutako formazioa, alegia.

Analisi hau guztiz bat dator Mugarik Gabek egindako ekarpenarekin, ondorengoa esaten duelarik:

“Profesionalen formakuntza gabeziak: Profesionalei bideratzen zaizkien formakuntzak teknikoak dira, prozedimentalera murriztuak, ez-politikoak, ezta egungo modeloerakiko kritikan oinarrituak. Esku-hartzerako gailu bezala soilik diseinatu dira eta testuinguru teorikoa eta genero eta teoria feminista alde batera uzten dira. Lehen mailako arreta zerbitzuetan indarkeriaren inguruko 10 orduko oinarrizko kurtsoetara mugatzen da, balizko emakume biktimak detektatzera zuzenduak, ostean errekurtsu espezializatuetara berbideratzeko helburu bakarrekin. Kurtso hauetara doazenen artean soilik %1a dira gizonak eta hauetariko batzuk formazioa boikoteatzera doaz.”

Profesionalek badiote feminismotik burutzen ari diren esku-hartzeen jakitun badiorela, baina errepikatzen dute ez dela horren inguruko hausnarketa sakon bat existitzen, ezta guzti hori zelan konkretatzen denaren ideiarik ere ez. Are gutxiago eremu bezala. Egiten diren esku hartzeak edo norbanako pertsonen borondateari ezker edo entitate gutxi batzuen esku egiten

² Kontzientziazioa: “Emakume eta gizonek euren errealitatearen egoera soziokulturalera itzartzen dituen, jazartzen dituzten muga eta alienazioez harago joaten diren ekintza kulturalerako prozesu bat da, eta euren burua subjektu kontziente bezala eta euren etorkizunaren sortzaile baieztatzen dute.” (Freire, 1984)

direla zehazten dute kasu gehienetan, baina euren arteko harremanik gabe. Ezinbestekoa litzateke hausnarketak eta praktikak komunean jartzea. Bide hau kolektibo bezala egitea, minimo komunak ezartzen, horrela suertatu lirakekeen oztopo ezberdinak elkarrekin gaindituz. Egon badauden ezberdintasunak balio erantsi bezala ulertzearen beharra azpimarratzen dute, eta ez feministen arteko urruntze faktore bezala.

Bestalde, ez da ulertzen esku-hartze feminista bat pertsona eta profesional bezala izan beharreko loturarik gabe. Praktikan oinarritutako eta praktikara bideratutako hausnarketa bat egin beharko litzateke, interseksionalitatea ikuspuntu eta estrategia bezala eduki beharko lukeena. Aniztasuna kontutan hartu beharko lukeena teoria, estrategia edo egiteko modu bakar batera mugatu barik. Esku-hartzea pertsonetara egokitu behar dugu eta ez pertsonak esku-hartzera.

Funtsezkoa da emakume profesionalak euren nortasun anitzak aitortu ditzaten, zapaltzen dituzten opresio modu ezberdinak, baita beste emakume batzuekin alderatuz dituzten pribilegioak ere. Eta dekonstruzio horretan feminista bezala berreraikitzea.

Hausnarketa sakona, feministen eta entitateen arteko minimo komunak, prozesu kolektiboa eta azkenik, baina ez garrantzi gutxiagorekin, bai emakume langileekiko zein lan egiten dugun emakume horiekiko kontaktua mantenduz. Minimo horien zeintzuk izan beharko lirakekeen inguruan:

- Pertsonen askatasunarekiko errespetua.
- Horizontaltasuna eta pribilegioen ezabaketa.
- Beste emakumeekiko errekonozimendua eta sororitatea.
- Emakumeen eskubideak, haurren eskubideak eta giza eskubideak hortzmuga bezala izatea.
- Bizitzaren jasangarritasuna.

SETEM Hego Haizea-tik gure ikuspuntu profesionala bideratu ahal izateko gako estrategiko batzuk ematen dizkigute: *“Epistemologia feminista dioen moduan, errealitatea begiratzeko enfokea azalaraztea ezinbesteko baldintza da gizarte fenomenoei zintzoki heltzeko.*

Nondik begiratzen dugu errealitatea?

- *Bizitzaren jasangarritasuna*³ *erdigunean jarriko duen ikuspegi feminista batetik, kapitalen akumulazioaren logika eta pertsonen bizitzaren erreproduzioaren logikaren artean dagoen gatazka azalaraztea suposatzen duena.*
- *Indarkeria matxisten ikuspegi zabal batetik, modu, maila eta manifestazio mota ezberdinak identifikatzen dituen, indarkeria zuzen eta ikusgarritik harago doana, askotan ikusezin diren indarkerien multzoa aztertzea ahalbidetzen duena.*
- *Sexua-generoa-sexualitatea eskema zalantzan jartzen duena. Sistema horrek, modu hierarkikoa ezarrita, heteroarauetik irteten diren gorputz guztien kontrako indarkeria eragiten duelarik.*

³ Bizitzaren jasagarritasuna: “Birproduktzio sozialeko prozesu historikoa irudikatzen du, prozesu konplexu bat, dinamiko eta dimentsio anitzekoa, norbanako izaeren eta gizarte harremanei etengabeko egokitzapenean dauden beharren asebetetzetasuna, etengabe berreraikia izan behar den prozesu bat, errekurtsio materialak behar dituen, baina baita zaintza eta afektuzko testuinguru eta harremanak, hauek etxeetan ordaindu barik egiten den lanak emandakoak [...]. Ekonomikoaren eta sozialaren artean dagoen harreman sakonaren kontu emate diguna, ekonomia beste ikuspegi ezberdin batean kokatzen duena, dependentziaren dimentsio ezberdinen arteko harreman estua ezartzen duena eta, azken finean, pertsonen, emakume eta gizonen, bizi baldintzak lehenetsun bezala planteatzen dituena” (Carrasco, 2009:183).

- *Kontsumoen ikuspegi zabal eta soziala. Kontsumoa arau sozialek eta ohiturak ezarritako gizarte jokabide bat bezala ulertuz, norbanakoaren benetazko erabakiak zuzenduta baino.*
- *Azkenik, intersektionalitateak, horrela definitua izan delarik: "zapalkuntza egitura asko eta aldi berekoak dituen sistema konplexu bat" zeinean sexu, arraza/etnia, adin, sexu orientazio... arrazoien ondoriozko diskriminazioa elkar-ekiten duten (Muñoz 2011)."*

1.3. Ondorioak profesionalentzat

Parte-hartzaile gehienen ustetan gizarte esku-hartzeko profesionalak ez dira errealitatearen nahiko kontziente ikuspegi feminista batetik.

Gai honekiko arrazoi garrantzitsuenak hauek dira:

- Feminismoaren inguruko formakuntza falta.
- Jarduera profesionala ustezko giro justu eta solidario batean burutzea, matxismotik urrun, nolabaiteko burbuja batean kokatzen dena.
- Goi mailako eta ardurak karguak gizonaen eskuetan daude.
- Denbora falta betiko ikuspegitik at aztertu ahal izateko esku hartzeak.

Azken puntu honi begira interesgarria iruditzen zaigu Mugarik Gabeko kideek euren kolaborazioan egiten duten ekarpena: *"aldagai interkulturalak jasotzen ez dituzten esku-hartze marko estankoak ikusten dira; indarkeriatik kanpoko bizipenak; aurretiaz pairatutako beste indarkeria edo jatorrizko herrian eraso bat jaso izan duten emakumeen kasua (adibidez)."*

Uste da irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeei profesionalki lotuta dauden pertsonak, gaur egungo gizartearen egoerarekiko kontzientzia handiagoa dutela, sektore publikoko esku-hartze sozialean lan egiten dutenek, ordea, kontzientzia feministaren maila txikiagoa erakusten dute.

Interbentzioa edozein instituziotik burutzen dela ere, parte-hartzaileek uste dute posizionamendu pertsonal eta profesional bat izan behar dutela indarkeria matxistaren eta feminismoaren aurrean.

Esku-hartze feministak profesionalen berrikuspenera suposatzen du. Horretarako, badago zeozker alde aurretik dagoena, guzti hori geure buruaren baitan bertan identifikatu behar dugu, alde batera utzi behar dugunaz eta berrikasi beharrekoak kontziente izan, feminismotik, alegia, etengabeko garapenean. Kontzientzia handiagoa sortu eta epe luzeko konpromisoa sortzea, ez da arriskurik gabeko prozesu sinple eta laburra. Guztiz kontrakoa.

Pertsona guztiek adierazten dute esku-hartze feminista bat gauzatzeko, lehendabizi feministak izan behar garela. "Nor naizen eta nola egiten dudan" horien arteko koherentzia sakona egon behar da. Itziar Canterak horrela azaldu du: *"Garen bezala egiten dugulako; geure burua eraldatzen ez badugu, gure ikusteko moduan, gure sentikortasunean, ez dugu inolaz ere aldatuko gure bizimodua edo lanean jarduteko modua. Horregatik da horren garrantzitsua profesional eta erakunde bakoitzarekin etengabeko eta epe luzeko lana a egitea".*

1.4. Ondorioak esku-hartzean

Eztabaidan parte hartu duten pertsonak diotenez feminismoari buruz hitz egiten dugunean esku-hartzeaz hitz egiten dugunean bezala gertatzen da, bakarrik egiteko modu bat ikusten da,

izateko modu bakar batera zuzendua, esku-hartze hori existitzen den aniztasunera egokitu barik.

Feminismoari buruz hitz egiten denean, feminismoa ulertzeko modu bakar batetik abiatzen da, feminismoan dibertsitate handia dagoela ulertu gabe. Era berean, marjinetan mantentzen diren emakumeak ezkututzen dira, anitzak diren kolektibitate horien eta kolektibo ez-normatibo horiekin lotutako feminismoak ere alde batera utziz. Feminismoak berak zalantzan jartzen ditu feminismo ez-hegemonikoak, euren erritmoak eta emantzipazio prozesuen eraikuntza nolako izan behar duen, euren bizi maila lehentasuna zeintzuk izan behar diren eta euren erabakiak, orokorrean, ere. Prozesu horiek ez dira linealak eta bestelako bide batzuk hartzen dituzte. Norberaren kultura eta, ideologiatik bideratzen dira eta ez da ulertu nahi emakume bezala modu ezberdinean eraiki daitezkeela.

Horrez gain, marjinetako feministak deituriko horien esparruan, kontzientzia hartzeko beharrezkoa den denbora epeekiko ulermen maila handiagoa dago, emakume bakoitzaren baitan ematen diren aldaketa txiki bakoitzaren garrantziaz jabetzen direlarik. Horregatik, batzuetan ez dira feminismo hegemonikoak ezartzen dituen erritmoekin identifikatzen, zeinetatik, era artifizialean eta eraginkortasun eskasarekin erritmo horiek azkartu nahi diren.

Parte-hartzaileek uste dute marjinetako feminismoak eta horiek sustatzen dituzten emakumeak zintzoa eta koherenteenak direla gaur egun, izan ere, feminismo hegemonikoarentzat berarentzat ere ikusezinak direla eta. Gizarte esku-hartzea, praktikan, kulturartekotasunarekin, interseksionalitatearekin eta feminismo inklusiboekin lotu behar diren ideiarekin ere bat egiten dute. Aldi berean, aitortzen dute egon badagoela guztiak tokia izango dugun eta ekinbide interseksional horrez lagunduta egongo den espazio bat eraikitzeko benetako esfortzu bat.

Gizarte esku-hartze feminista bat lortzeko, nola diseinatzen den, esku-hartzea nork burutzen duen, zein helbururekin, eta horrelako elementuen inguruan hausnartzeko geldialdi bat egin behar dugu: elementu hauek feministak al dira?

1.5. Ondorioak erakundeetan eta gaur egungo egoera

Profesionalen hitzen analitik ondorioztatzen da, orokorrean, hirugarren sektoreko edozein entitate feminista dela esateko ez dela nahikoa honek berdintasun plan bat eginda izatearekin. Parte-hartzaileetako baten esanetan ohikoa da feminismo hitza esatean zurrunbiloa sortzea. Horregatik, eta erresistentzia horiek ekiditeko, feminismo esan beharrean "genero perspektiba", "genero analisia" edo "generoa" bakarrik esan ohi da.

Elda Uribelarreak ondorengoa esaten digu:

"Praktikan oso ohikoa da Feminismo hitzak sumina sortzen duela topatzea berarekiko dagoen ezjakintasuna dela eta, eta, batez ere, beldurragatik, izan ere, ezezaguna denak beldurra ematen du.

Horregatik, eta bai frontala zein zeharkakoa izan ohi diren talkak ekidite aldera, feminismo esan beharrean "genero perspektiba", "genero analisia" edo "generoa" bakarrik esan ohi da. Baina izenik ez duena existitzen ez bada Feminismoa ez da gizarte esku-hartzean existitzen eta, noski, maskara jarrita, ezkutatuta eta isilduta edukitzea Feminismoaren aurkako indarkeria ariketa bat da.

Daukan 200 urteko historiak aitortza eta lekua ematea eskatzen du batez ere Feminismoak emakumeen eta gizonen justiziaren aldeko proposamena delako eta horregatik ezinbesteko eredia izan behar da gizarte esku hartze eta hirugarren sektore sozialarentzako".

Hirugarren sektorean eta gizarte esku hartzean, inongo erakunde edo profesionalak ez du inolako zalantzarik euren burua anti-arrazista edo anti-homofobo bezala deklaratzeko, inork ez du beste planteamendu pertsonal edo profesionalik egiten arrazismoaren edota homofobiaren aurrean, zergatik ez da irmotasun berdina erakusten nor bere burua feminista edo anti-patriarkal edo emakumeen zapaltzaileen kontrakoa, edo edozein pertsonaren zapalkuntzaren kontrakoa, bere nortasun anitzen eta ez normatiboekin, bezala azaltzen? Zergatik feminismitik aurreiritzia, ukazioa eta kriminalizazioa eratortzen da beti? Nor sustatzen du hori eta noren onurako?

Genero ikuspegia eta erakundeen berdintasun planen inguruan eztabaidatu egin da. Profesionalak bat datoz adieraztean genero-ikuspegia, berdintasun planak aplikatzearen bidetik "guztio bere egin duten planteamendu bat izan dela. Egoera irudikatzeko tresna bat izan dela, emakumeak gehitzen eta kentzen laguntzen duena, desberdintasunaren alderdi batzuei buruzko informazioa ematen duena, berriz ere detektatzeko errezenak diren alderdi horiena."

Eztabaidetan zehar, genero-ikuspegiak entitate guztiek bereganatu ditzaketen erronkak planteatzen dituela adierazten da, aldatzeko borondate onargarria erakusteen duten politikoki zuzenak diren helburuak eta mahaigaineratzen dute parekidetasunera eta eskubideetara modu nahikoan heltzeko erremintak ere badaudela: "Generoa teoriaren esparrua, egia esan, estualditik ateratzen gaitu, izan ere, oinarriko gako bat planteatzen digu: Behar praktikoa/interes estrategikoa. Beraz, pertsona bat laguntzen ari zarenean, premia praktikoa hartu behar duzu kontutan, hau da, bere berehalako beharrak asetzea, hots, urgentzia. Ez interes estrategikoa, gizartea eraldatzeko laguntza behar handiagoa suposatzen duena... Hau da, rol aldaketa, estereotipoak...".

Profesionalek azaltzen dutenez genero ikuspegiak ez ditu barne boterearen harremanak elikatzen dituen balioak zalantzan jartzen, entitateen barneko eginbeharrak antolatu eta banatzen dituztenak, entitatea beraren antolaketa egitura barne, berau osatzen duten pertsonen artekoa, alegia, soldatapeko pertsonala, bolondresak eta lan egiten den pertsona horiek edo entitate kanpokoak, erabiltzaile deitzen ditugun horiek (izenak berak jartzen ditu toki ezberdinu batean, entitatearekiko, profesionalerako, urruntzen eta despertsionalizatzen).

Profesionalek uste dute genero ikuspegiak hitz egiteak errealitatearen argazki bat egitea eskatzen duela, leku edo espazio jakin bateko emakume eta gizonezkoak kontuan hartuta. Hau, edozein motatako erakundek egin dezakeen ariketa bat da, kontzientzia feminista izan ala ez. Honi gehitu beharra dago berdintasun plan bat edukitzeak ez duela bermatzen plan hori praktikara eramango denik, ez eta gero ezartzen diren planteamenduak gauzatuko direnik ere ez.

Berdintasun planek modu formalean justifikatu egiten dute berdintasun formala sustatzen ari dela, nolabait espediente bat betetzeko erabiltzen dira, baina berdina egiten jarraitzen da ez delako entitatea, honen kudeaketa eta esku-hartzea oinarrian duen egitura patriarkala eraldatu. Are gehiago, parte-hartzaileek pauso bat aurrerago doaz berdintasun plan hauek ez badira behar bezala erabiltzen gure kontrako erreminta bat bilakatzen direla esatean, helburuak lortu direla esateko erabiltzen badira, jadanik parekidetasuna lortu dugula, eskubide berdinez gozatu dezakegula, pribilegioak iraganeko kontua direla eta botere harremanak ez direla existitzen.

Hala eta guztiz ere, parte-hartzaileek uste dute feminismoak gure izaera bera zalantzan jartzen duela, gure subjektibotasuna eta nortasuna nola eraikitzen dugun, gure afektuak nolakoak diren eta nola erlazionatzen garen elkarren artean. Genero eta estereotipoetatik haratago, ornitzen gaituzten egitura guztien harreman sistema guztiak berrantolatzen ditu, gure kasu honetan, gizarte esku hartzea, alegia. Feminismoaren norabideko benetako aldaketa egongo bada,

aldaketa hau 180º-koa izan beharko litzateke, zimentuetatik, lan egiten dugun pertsonekin burutzen dugun esku hartzearen antolaketa eta kudeaketara helduz.

Profesionalek diotenez, berdintasun planek proposatzen dutena da, maila formalean, eskubideetarako edo promoziorako sarbidea, baina balioak, jarrerak, ezkutuko kurrikuluma, ez dute inongo aldaketarik jasotzen, eta hauen eraldaketaren kontra agiten dute, hau da, ustez suzkatzen diren eskubide horiek gozatzea ezinezkoa izan dadin, izan ere, haren azpian dauden jarrerak guztiz ezkorrek dira beti, edo ez dira jazarpenean dauden beste sistema batzuegandik lagunduak ikusten (bajak, eszedentziak, lanaldi murrizketak, horizontaltasuna eta parte-hartzea erabakietan, ardura mailarako sarbidea, soldata duinak, jasangarritasuna eta pertsonetikiko ardura...).

Berdintasun planak ez dira kontzientzia zintzo baten ondorio, eraldaketarako borondate baten ondorio, ez dute ez profesionalen ez lagundutako pertsonen bizitza baldintzen hobekuntzari laguntzen. Laburbilduz, praktikan, berdintasun planek ez dute pertsonengan benetako eraginik.

Euren ustetan gertatutakoa, bai berdintasun planekin zein berdintasun batzordeekin, da sistemak berak bere egin duela kontzeptua eta egunez ustuta itzultzen duela, konpentsazio gutxi batzuk soilik ematen ditu, eta "sistema formatuan" gainera. Entitateen irudiari mesede egiten dio, baita gizarte eta administrazio mailako onarpen mailari ere, euren dirulaguntzekiko zein kontratuekiko sarbidea dena, alegia; zerbitzu eta ondasunetarako sarbidea.

Teoria feministak eraldaketaren norabidean aurrerapauso kualitatiboa ematen duenaren hausnarketa ere egiten da. Botere edota pribilegioen ezinbesteko galera dakarren aurrerapausoa. Ez bakarrik gizonezkoen partetik, baita lan mailako rolen jokabidetatik, gizon zein emakumeen partetik.

Bi maila ezberdinei egiten zaie erreferentzia bi adibide zehatzekin:

- Entitateen egituren barnean ezinbestekoa da geratzen den lidergo mota identifikatzea, baita botere banaketa eta jerarkiak ere.
- Lan egiten dugun pertsona horiekiko ere pribilegio galera bat egon behar da. Adibidez hezitzaile emakume zuria vs. erabiltzaile emakume ijitoa.

1.6 Feminismora igarotzeko zailtasunak

Profesional guztien esanetan ezinezkoa litzateke gure sektorearen eraldaketa lortzen entitateek horren aldeko apustua egiten ez badute. Nola? Noiz? Zein errekursorekin? Eta gainera kanpoko finantzaketaren menpe egotekotan oraindik eta zailagoa bilakatzen da horren lorpena eta hori da, alegia, gizarte esku-hartzearen errealitatea. Entitateak, euren eguneroko praktikan, eraldatzaileak baino posiblistak direla ikusten da.

Benetako zailtasun bat azalarazten da patriakatutik feminismoarako aldaketa bat sustatu ahal izateko. Alde batetik entitateek ez dute benetako borondaterik euren izaera propioaren zimentuak ere mugiaraziko lukelako eta, batez ere, euren egiteko modua. Bestalde, profesionalen artean askok ez dute ekintzara pasatzeko behar bezalako konbentzimendurik.

Probarik argiena da berdintasun planak dauden leku horietan, naiz eta hauek eskasak izan erreminta erabilgarri bat izan liratekelarik, ez direla martxan jartzen modu eraginkor batean. Ez dira sakontasunean ezagutzen profesionalen partetik eta ez dute inongo benetako eraginik ez esku-hartzean, ez gure zerbitzu eta errekursuetan lan egiten dugun pertsona horiengan.

Eztabaidatzen den beste zailtasun bat espazio feministen inguruko hausnarketa edo planteamendurako denbora falta litzateke, edo gutxienez berdintasuna sustatzeko edo indarkeriaren aurka egiteko aukera emango luketen ekintzak uztartu ahal izateko. Ikusten da ez dagoela horretarako joerarik entitateak osatzen dituzten pertsonengan bai denbora falta horrengatik, bai betebeharren bikoizketak direla eta (daukaten lanari berdintasun batzorde horietan parte hartu beharra gehitzen zaie, adibidez), errekonozimendu ezagatik edo efikazak izatea ez lortzearen edo benetazko praktikotasuna ez izatearen ondoriozko frustrazioagaitik. Azkenengoz, formakuntzaren beharra aipatzera itzultzen da.

Profesionalek pentsatu ahal izateko denbora eskatzen dute, formakuntzarako, euren jakituria hornitu ahal izateko jarduera profesionala eta osatzen duten entitatea bera sostengatzen duten langileak diren heinean. Ez da prozesuetan inbertitzen ez delako pertsonetan, gizarte esku-hartzearen benetako aktibo bezala, inbertitzen.

Aipatzen den beste gakoetako bat dat lankargaren gehiegikeria, lana, ardurak, eta askotan urgertzian oinarrituta egiten da lan. Honi administrazioen dirulaguntzekiko menpekotasuna eta une oroko lanpostua mantentzeko borroka bera gehituta, ez du askotan uzten kalitatezko esku-hartze sozial bat, laguntzen den pertsonen beharretara egokitutakoa, burutzen. Lan gaitzera hau burutzen den lana beraren, lagundu beharreko pertsonen eta profesionalen kontra doa.

Berebiziko garrantzia du adierazteak aipatzen den beste oztopoetako bat gizarte esku-hartzeko gizon profesionalen inplikazio falta dela, motibazio faltatik eratortzen den inplikazio falta. Hau argi geratzen da euren parte-hartze maila eskasa proiektu honetan planteatu diren jarduera bakoitzean, aurretik esan bezala, %15etik beherakoa dena.

Itziar Canterak honen inguruko bere hausnarketa uzten digu: *“Niretzat gauzarik injustuenetako bat eta, ondorioz, urgenteenetakoa, oraindik ere eraldaketa horren pisua emakumeen gain uzten dela da, gizonak ez daude presente, ezta ez dira deituak ere, euren burua arazo horren parte bezala aurkezteko, eta konponbidearen alderdi garrantzitsu bezala ere ez, ekuaziotik kanpo jarraitzen dute. Horrela, sentsibilizazioaren eta prebentzioaren parterik handiena emakumeei zuzenduta dago, euren gain ezartzen da aldaketa horretarako esfortzua; ezinbestekoa ikusten dut esfortzuak eta dirua bideratzen hastea haiek gehituz joan daitezen benetako berdintasunera heltzeko beharko litzatekeen aldaketak egitera. Horrengatik, oso garrantzizkoa iruditzen zait, lehenik, aldarrikapen hau entitate ofizial guztietara helaraztea, alegia, prebentzio eta sentsibilizazio jarduerak burutzen edota laguntzen dituztenetara. Bigarrenik, beharrezkoa iruditzen zait ondorengoan hausnartzea: zelan eragin handiago izan gizarte esku-hartze eremuko gizonengan, errealitate eta alderdi ezberdinetan lantzen den genero indarkeriaren inguruan.”*

1.7. Aurrera egiten joateko urratsak

Zentzu horretan, inkestatutako pertsonen uste dute erakundearen bilakaera sare mailako lan-estrategia bat egitetik igaro beharko lukeela, ondorengo lortzeko:

- Feminismoarekiko jarrera komuna.
- Gizarte esku-hartzean Etika Feminista⁴ batera bideratutako ibilbide partekatu bat.
- Gizarte esku-hartze feminista baten eraikuntza.

⁴ “Etika feminista” feminista deitutakoa etorkizun inklusibo baten eraikuntzara lagunduko duten printzipio eta balioak ematen ditu, planetako emakume eta gizon guztiak lekua edukiko duten etorkizuna, naturarekin, justiziarekin eta gizarte berdintasunarekin harmonian.” “Ética y desarrollo profesional”, “Etica y Feminismo” liburuan agertzen den Carmen Castro idatzitako atala, Guadalupe Bohorques Marchirik koordinatua. 2014.

Beharrezkoa da profesionalen eta erakundeen arteko topaketa. Ikuspuntu eta esperientziak partekatzea premiazkoa da. Irakurketa partekatu bat beharrezkoa da eta tresnak ere behar ditugu. Entitateen inbertsio erreal eta eraginkorra beharrezkoa da: denbora, dirua eta jendea. Guzti hau ondorengoa lortzeko:

- Balioak, misioa eta ikuspegia birpentsatzea, baita erakundeen plan estrategikoen ardatz nagusiak ere.
- Lan egiteko moduak aztertzea, rolak eta funtzioak nola banatzen diren, zein lan mota baloratzen diren eta noren alde doazen merituak, promozioak nola erabakitzen diren eta karrera profesional jasangarri bat errazten den (zaintza eta kontziliazioa).
- Esku-hartze sozial feminista bat sustatzea, interseksionaitatean oinarritua bizitzaren jasangarritasuna ardatz nagusi bezala esarri.

Profesionalek dioten esku-hartzea birpentsatu behar dela, feminista izan behar den ikuspegi batera igaroz pertsonen bizitzaren jasangarritasuna izan behar du helburu bezala, entitateen jasangarritasunetik haratago oraindik, askotan soilik neurtzen dela dirulaguntzen edota kontratuen arabera, hots, termino ekonomikoetan.

Oinarritzotzat hartzen duten gai batera itzuliz, alegia, nola ezartzen diren lan harremanak, beti pribilegioan eta boterean oinarritzen diren harremanak izanda, ondorengo gakoak ezartzen dituzte azterketarako:

- Nola burutzen den pertsonetikiko esku-hartzea.
- Nork eta nola antolatzen diren errekursoak.
- Nork burutzen dute sare mailako lana.
- Nor darama diruzaintza.
- Nork burutzen dituzte proiektuak.
- Nork gainbegiratzen du.
- Nor agertzen da publikoki.
- Nor geratzen da alderdi pribatuan.
- Zein balio ematen zaio lan bakoitzari.
- Zein garrantzi ematen diogu ongizate eta zaintzari.
- Komunitatean duen eragina.
- Erabiltzen den lengoia eta komunikaziorako estila.

Beste alde batetik, egun badira feminismoarako biraketa bat egitea planteatu duten erakundeak eta lan-taldearen barne funtzionamendua nolakoa den aztertzen ari direnak. Lanean, erakunde barneko langileen artean ematen diren genero rolen dekonstrukzioa nola egin daitekeen inguruko introspektzio lan bat. Diotenaren arabera zailena akordioetara heltzea da, pertsona bakoitzak lehentasunak ezartzeko, lan banaketa zein izan behar den esateko... ikuspegi ezberdinak dituztelako.

Ezinbestekoa ikusten da benetan zintzotasunean eta koherentzian oinarritutako hausnarketa sakoneko prozesu bat abiaraztea gure erakundeetan feminismoa inplementatu ahal izateko, instituzioetan eraldaketa eta aldaketa sakonak ekarriko lituzkeena. Eremuaren benetako berrikustea planteatzean sortzen diren zalantzak eta ziurgabetasuna mahaigaineratzen dira, lehena, naiz eta gehien bat emakumez osaturiko sektore bat izanda ere, ardurako eta goi mailako postuak gizonezkoek osatuta dagoela. Bigarrena, sektorea haztatzen duten gizonengatik. Prozesu honek erakundearen barne dinamiketan aldaketa sakonak suposatuko luke, lanen eta arduren banaketan, pribilegioen galeran eta entitateen agitura beran ere.

Feminismorako prozesu hauek behar bat bezala planteatzen dira, eta gainbegiratuak izan behar dira beste edozein prozesu bezala, kalitaterako filtro zehatz eta zorrotzekin. Hau da, adierazten da, bai jarduera hau, zein esku-hartze feminista baten bidean burutu beharreko beste ekintzak bezala, erakunde independente bezala garatuak, entitate laguntzaile preseski feministaren batengatik etorritako kanpo mailako laguntza eta ebaluazio bat beharko luketela.

Formaziotik, kontzientziazio eta gaikuntzara. Oinarrizko betekizun bat izan beharko litzateke profesional guztiak feminismoaren inguruko konpetentziak izatea, ez bakarrik emakumeekin eta indarkerien gainean lan egiteko, baizik eta eremu guztietan, kolektibo guztietan, entitate guztietan. Konpetentziek kontzientzia feminista izatera eramán beharko lukete.

Horrela adierazten du Itziar Canterak: *“Uste dut ezinbestekoa dela gainbegiratze/formakuntza iraunkorraren exigentzia profesional feministen partetik gizarte esku-hartzea burutzen duten entitate guztietan. Gainbegiratze/formakuntza maila guztietan, indarkeria matxistaren kontrako legea egiten dituztenentzat, eremu honetan esku-hartzen ari diren entitate publikoetan, dirua daukaten prebentzio eta esku-hartze programei dirulaguntzak ematen dituzten entitate guztientzat. Jada, entitate eta erakunde bakoitzean ezinbesteko litzateke gainbegiratze eta formakuntza iraunkor hori, bai esku-hartzearen helburu eta edukien zehaztapenean, bai banan-banako zein talde mailako tutoretza bat profesionalentzako.*

Uste dut zabala bezain anbizio handiko aldarrikapena dela hau, baina baita defendagarria eta galdagarria gaur egun, eta esku-hartzeko maila guztietan hobekuntzak ekarriko lituzkeena, zeren eta esku-hartzeko maila guztiak, goitik hasita eta beheraino, hobetuak izan behar dira pentsamendu eta sentsibiltate feminista bat txertatuz.”

Lehen atal honekin bukatzen joateko, Elda Uribelarreak ondorengo ekarpen egiten digu: *“Egia izan bada feminismoa gero eta gehiago ari dela gure sektorean txertatzen. Hasieran komentatu dugun jarrera horrek bere eragina badauka eta hau geratzeko asmoz azalarazten joan da.*

Horretarako ezinbestekoa da hirugarren sektoreak eta gizarte esku-hartzeak bere egin eta ikusarazi dezaten, modu publikoan, feminismo jarduerarako eredu, ez baliagarria bezala, baizik eta ezinbestekoa, bai lan egiten dugun pertsonentzako zein gure lanean laguntzen ditugun pertsona horientzako kalitatezko bititza bat eskaini ahal izateko.

Beldurra izateari uzteko momentua heltzen ari da, bere sakontasun osoan ezagutzen asteko, eta den bezala ezagutarazi dezagun, hots, errealitatearen interpretazioarako paradigma zientifiko bat, emakume eta gizonentzako justizia proposamen bat eskaintzen diguna. Patriarkatua deuseztatzeko existitzen den proposamen bakarra, hau da, emakumeak zapaldu eta gizonei kalte egiten dien egitura soziala.

Bada garaia gure egunerokotasuneko diskurtso eta zereginetan konplexu barik txerazten hasteko, aurrez aurre, eta jakinda eraldaketa soziala, ongizate soziala eta pertsona ororen ongizatea soilik Feminsimotik abiatzekotan posiblea denaren poztasunarekin”.

Jardunaldiaren ondorioa

“Ezda eraldaketa sozialik feminismorik gabe”

“Feminismoa: justizia sozialera bideratutako esku-hartzearen ezinbesteko osagaia.”

2. Emakumeen kontrako indarkeriarekiko esku hartzearen ardatzak

2.1. Indarkeria matxistak

Atal honi indarkeria matxista delakoaren inguruan profesional ezberdinek egin dizkiguten ekarpenekin emango diogu hasiera. Horrela, Alessandro Bua ondorengoa esaten digu:

“Bururatzen zaidan lehenengo gauza “emakumeen kontrako indarkeria” terminologia bera da. Ezagunak dira zentzu honetan Osoko Legeari egin zaizkion kritikak (afektu mailako harremanetara mugatzea. Indarkeria hori fisiko edo psikologiko bezala bakarrik konfiguratzeko, etab...) baina esku-hartzearen eremutik, nire ustez, askoz zabalagoak diren egoera askorekin topo egiten dugu, Osoko Lege horrek ezartzen dituen egoerez baino askoz haratago, eta feminismoak jadanik agerian utzi dituenak.

Ados nago (are gehiago, erreferentzia horrek liluratu nau⁵) estean, esku-hartze sozialean, aitzindari izan ginela interseksionalitatea lan ikuspegi bezala hartzean (maila handi batean praktika horretan aurrera egiten hari ginela jakin gabe, alegia, inongo erreferentziazko marko teorikorik gabe). horregatik uzte dut, izan ere, “indarkeria matxista” terminoa dela gure eguneroko praktikara hoberen egokitzen dena, ez duelako bakarrik emakume izateagatik emakumeen kontra ematen den indarkeria hartzen, baizik eta patriarkatuak opresio sistema bezala eragiten duen egoera guztiak, seguruenik klasea edo jatorria bezalako beste sistema batzuekin batera.”

Pentsamendu ildo berean, SETEM Hego Haizeako kideek euren ikuspegia azaltzen digute:

“Indarkeria matxistak emakumeak edo beste edozein pertsona, zein eredu heteronormatiboak jarraitzen ez dituzten harremanak, diskriminatzen dituen ekintza guztiak bezala ulertzen ditugu eta, azken puntuan, askatasunean, duintasunean, segurtasunean, integritate moral edota fisikoan eragiten duena (Almirón Prujel, 2009). Kontsumo kapitalista bezala sistema kapitalista sostengatzen duen hori, eta mozkinen metaketaren logikari erantzuten diona.

Horrela, ikuspegi kritikoa feministak batetik hainbat kontzeptu eta planteamendu aukeratu ditugu, ez dutenak eztabaidarik itxi nahi, baizik eta errealtatea nondik aztertzen dugun eta begiratzen dugun azaldu.

Indarkeria matxistaren fenomenoaren konplexutasuna ikusgarri geratzen da kontzeptu beronek izan duen eboluzioari erreparatzen badiogu⁶. Izan ere, urteetan zehar, eta gaur egun ere, elkarrekin biziraun izan dute termino ezberdinak arazo hori deitzeko, azalpen marko ezberdinak ematen dituzten eta bere tratamendu eta deuseztatzerako estrategia ezberdinak proposatzen dituzten termino ezberdinak, alegia.

⁵ proiektua honen “Dokumentu marko”-ari erreferentzia.

⁶ Setem Hego Haizearen kolaborazioari erreferentzia: Denbora luzez, eta gau egun ere, etxe barneko edo familia barneko indarkeriaz hitz egin da, eremu pribatura mugatzen duten eta kausa bakarreko fenomeno bezala azaltzen dutena. Denbora pasa ahala “emakumeen aurkako indarkeriaz” hitz egitera igaro da, emakumeak superbibiente bezala ezartzen dituenak baina ez duena indarkeria horren zergatia azaltzen. Ostean “genero indarkeriaz” hitz egin zen, generoa jartzen duena erdigunean baina ez duena argi usten indarkeria hau emakumeek gizonezkoen dominazioaren eskutik pairatzen dutela indarkeria hori. Muga hau gainditzeko, batez ere herrialde latinoamerikarretan, emakumeen kontrako indarkeria patriarkala izendatzera pasatu zen, gizartearen egitura patriarkala jartzen duela indarkeriaren jatorria eta biktimak beti emakumeak direla ezartzen duena. Azkenik, “indarkeria” sexista terminoa dago, Estatu Espainolean erabiltzen dena, eta emakumeek, emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria bezala ezartzen duena, gizonezkoen dominazioa ikusaraziz.

“Indarkeria matxistak” terminoa hartzen dugu ondorengoagatik:

- *Euskadin errotuta dagoen kontzeptua da (konkretuki, Euskadiko azken topaketa feministak bere egin zuena, singularrean izan bazen ere).*
- *Indarkeria patriarkalak, genero indarkeria, emakumeen kontrako indarkeria eta indarkeria sexista barnebiltzen ditu.*
- *Sexua-generoa-sexualitatea eskemari aurre egiten dioten pertsona guztien kontrako indarkeria aztertzea ahalbidetzen du.*
- *Arrazoi estrukturaletan zentratutako indarkeriaren ikuspegi azabalago bat planteatzen duelako. Azkenik, adierazi nahi dugu indarkeria matxistetaz, pluralean, hitz egiten dugula, hartzen dituen forma anitzak ikusarazteko, fisikoaz, edo bikote edo bikote ohi harremanetan ematen denaz haratago.”*

2.2. Indarkeriaren dimentsioak

Hausnarketa hau hasteko indarkeriaren dimentsio ezberdinen inguruko argipen bat egiten da, eta zelan aztertu indarkeria matxistak dimentsio horietako bakoitzean (estrukturala, kulturala eta zuzena⁷) nola gauzatzen diren aintzat hartuz. Egoera honen aurrean SETEM Hego Haizeak egokia den begirada poliedrikoari egiten dio erreferentzia indarkeriarik eratortzen diren dinamika eta sistemak ulertu ahal izateko: “Zentzu honetan, Johan Galtungen indarkeriaren triangelu biziosoa, indarkeria matxistak diharduten maila edota dimentsio ezberdin horiek aztertu eta ikusaraztea ahalbidetu digu. Ikuspegi horretatik patriarkatuak indarkeria zuzena, estrukturala eta kulturala edo sinbolikoa nahasten dituela ulertzen dugu, bere burua indartua eta egitura hori iraunkorragoa bihurtuz”.

Profesional parte hartzaileek zailtasun bat ikusten dute gizarte esku-hartze programetan eragina duten indarkeria matxistak euren dimentsio estrukturalean zein dimentsio kulturallean zeintzuk diren identifikatzean. Diotenez indarkeria zuzenaren biktimentzako arretarekin lotutako programetan indarkeria mota horiek ez dira ezta kontutan hartzen. Adibide bezala jartzen dute ez direla berriztatu biktimei zuzendutako arreta zerbitzu eta errekursoetako jarrera eta balioak (errekursoen funtzionamendu eta barne dinamika, tutorizazio eta laguntza mota, laguntzen gainbegiratzea eta formakuntza eta lanbide orientazioa, eta beste batzuk).

Hori dela eta, indarkeria hauek gainontzeko kolektiboei zuzendutako zerbitzu edo errekursoetan nola gorpuzten diren identifikatzea, bai emakumeei zein gizonezkoiei, gizarte esku-hartzearen edozein eremutan, ez da aurreikusten. Honi gehitzen zaion handicap bat bestelako diskriminazio ardatzen eta presio sistemen intersekzioaren analisi eza da.

Horregatik guztiagatik parte-hartzaileak pentsatzen dute indarkeria estrukturala eta indarkeria sinbolikoa ez direla lantzen, identifikatzeko ezjakituriaren ondoriozko modu eraginkorrean aurre egiteko ezjakintasuna dela eta. SETEM Hego Haizeak hondorengo diosku: “Indarkeriak hertsadura sistema isilak dira, batez ere dimentsio sinboliko eta kulturalan oinarritzen direlako, hortik detekziorako zailtasuna: normalak balira bezala naturalizatuta, barneratuta eta onartuta dauzkagu”.

⁷ Indarkeriaren triangelua Johan Galtungek sortutako kontzeptua da gatazka sozialetan sortzen den indarkeriaren dinamika azaltzeko. Galtungen arabera indarkeria iceberg bat bezalakoa da, bera ikusten den indarkeria gatazkaren zati txiki bat besterik ez da. Hau konpontzea ematen diren indarkeria guztietan esku-hartzea suposatzen du, hauek hiru izango litzatekelarik: zuzena, bortizkeria jarreretan zehazten dena: emozionala, psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa, sexuala edo administrazio mailakoa. Estrukturala, gizartearen egituretan duena erdigunea: biziraupenerako oinarritzko beharrak ez bermatzea. Eta kulturala, sinbolikoa, erlijioan, ideologian, lengoaian, artean, zientzietan, komunikabideetan, hezkuntzan... adierazten dena eta beste indarkeriak legitimatzeko funtzioa betetzen duena, baina pairatzen duten horien erantzuna deuseztatzea ere.

Gizarte esku-hartzean indarkeria kultural eta sinbolikoa lantzen dituen praktika batzuk identifikatzen dira baina, ia kasu gehienetan, bikotearen testuinguruan ematen den indarkeria matxistaren prebentziora zuzenduta daude soilik. Adibide bezala nerabeen eta gazteen indarkeriaren prebentzioa jartzen dute. Mota honetako programa edo tailerretan (nerabeekin esku-hartzean liderra den formatua, alegia) indarkeria matxistaren dimentsio sinbolikoaz hitz egiten da, "maitasun erromantikoaren mitoaren" eta ezkongai-aldiaren eraikuntza zentratuta. Esku-hartzeak indarkeria zuzeneko egoera ezberdinak ekiditea du helburu gisa, baina ez pertsonen emantzipazio prozesuak sustatzea.

Parte-hartzaileek adierazten dute deskribatu dugun prebentzio horrek ez dituela kontutan nortasun eta sexualitate ez normatiboak. Zentzu honetan, indarkeria estruktural eta kulturalarekiko arretaren adibide bat ondorengoa izango litzateke: nerabe eta gazteekin euren aukera bikoterik ez izatearen aukeraz hitz egitea. Kasu honetan prebentzio lana gizarte mailako presioari eta presio estrukturalari aurre egiteko erremintak ematean zentratuko litzateke esku-hartzea, hau da, zure burua bikote barik mantendu nahi izatekotan jasan behar duzun presio horri aurre egiteko erremintak; izan dezakeen transgresio indarraren ondorioz jarrera hartze politiko bat izatera igaroko duen erabakia. Bikotean bizitzeko diseinatuta dagoen gizarte batean, posiblea bada bikote heterosexualean, edo edozein kasutan balio heterosexual edo patriarkalekin, eta bikoterik izan nahi ez duen edonor estigmatizazioan eta pobrezian bizitzera kondenatzen den gizarte batean alegia.

Botatako kritikak botata ere, horrelako jarduerak beharrezkoak ikusten dira, baina integralagoa izango den esku-hartze baten osagarri bezala.

Parte-hartzaileek azpimarratzen dute indarkerietan egiten den lana modu global batean aurreikustearen beharra: guztientzat, programa guztietatik, eremu guztietan eta prebentziora, detekziora eta esku-hartzera zuzenduta.

Indarkeria matxisten prebentzio bezala ezagutzen dugun horren inguruan sakondu behar dugula dioskute (aurrerago bere inguruan hausnartuko dugun kontzeptua), eta egitekotan, feminismitik. Bat egiten dute prebentzioari garrantzi gehiago eman behar zaiola adieraztean, interseksionalitatea hartuz analisirako neurri eta esku-hartzerako estrategia bezala. Bakarrik horrela sustatu daiteke garrantzi handia eman zaion aspektu bateri: bakartasunetik eta indibidualitatetik abiatutako aldaketa pertsonala, pertsonaren eritmoarekiko errespetua eta sororitatean oinarritua, elkarrekiko errekonozimendutik. Lanketa hau feminismoa erreferentzia marko bezala hartuta egin beharko litzateke, askatasunetik abiatutako potentzial pertsonala sustatzeaz hitz egiten diguna, beste bizitza onekin harremanetan jarritako bizi onaren eraikuntza.

Atal hau, elkarrekin adostutako beste pertzepzio batekin bukatzen da: indarkeria zuzena bakarrik lantzen da ez delako indarkeria matxistetan inbertitzen, eta lantzen den indarkeria zuzenarekin lan egiteko ere errekurtsio falta badago.

2.3. Gizarte esku-hartzea eta honen lana indarkeriarekiko

Profesionalak bat datoz esatean gizarte esku-hartzearen eremuan profesionalok indarkeria egoera askorekin lan egiten dugula. Sistema patriarkalak sortutako indarkeriak, alegia, eta beste zapalkuntza sistemetatik eratorritako indarkeriekin gurutzatzen direnak (kapitalismoa, arrazakeria, klasismoa, heteronormatibitatea).

Burutzen den lana eragin handia dauka profesionalengan eta feminismitik gai honek arretaz hartzea merezi du. Pertsonak, euren identitate anitz eta errealitate bakarrekin, bere osotasunean, ulertzearen beharrean du isla. Feminismoak zaintzaren kulturara bideratzen

gaitu, profesionalen ongizatearen inguruko interes sakona adierazten du. Arrazoa, emozioa, sexualitatea eta gorputza, bere alderdi profesionalean ere zainduak izan behar dira, baita testuinguru profesionalean ere bai. Feminismotik egiten den ekarpen hau, gizarte esku-hartzeko profesionaleri eta lan egiten den pertsona horiei ere doa zuzenduta.

Aurretik esan den bezala, profesionalen esanetan argi geratzen da soilik Osoko Legeak hartzen dituen indarkeria matxista mota horiekin lan egiten dela: indarkeria zuzena eta ikusgarria dena, gizon/emakume batek eraginda emakume baten kontra bikote harreman baten barnean.

Profesionalek azaltzen dutenez topatzen dugun oztopoetako bat salaketari eta, batez ere, babes eginduari ematen zaion garrantzia da. Hauxe laguntza guztiei eta salbuespenik gabeko sostengu guztiei atek irekitzen duena baita. Honi kontrajarrita, indarkeria kasu gehienetan emakumeak ez duela inongo salaketarik jartzen aurkitzen dugu. Emakumeekin lan egiten duten profesionalek badakite hau, baita estatistikoki probatuta dago datu hau, eta hala eta guztiz ere salaketa jarraitzen du izaten laguntza guztienganako sarbidea. Emakumea justiziaren sostengua badu, hau da, pairatutako indarkeria demostratzeko posizioan badago, emakume horren sinesgarritasuna berean irauten du. Justiziak emakumea sinisten badu, gainerako profesionalek edota zerbitzuek ere sinisten dute edo, gutxienez, salaketa faltsuen aurrean estaldura badaukate (naiz eta badakigun salaketa faltsuen kontua ke-laino eta sinesmen faltsu bat izan, baina indarkeria matxisten inguruan zabaldua dagoena) eta garrantzitsuagoa ere badena, prozesu guztian zehar jarduten duten profesional batzuek izan ohi dituzten sentimendu eta iritzi kontraesankorren aurrean. Mugarik Gabeko kideek argi adierazten dute euren ekarpenean: *“Salaketaren instrumentalizazio argia dago. Arreta bera baldintzatzen du”*.

Indarkeria matxisten inguruan hausnartzen da eta kasu guztietan “urgentziazko esku-hartze” bezala deskribatu egiten da. parte-hartzaileek pentsatzen dute urgentzia horretan oinarritutako lana burutzeak pertsonaren benetako beharrak kontutan ez dituzten egoeretara eramaten gaituela, berorren nahiak, denborak, ideologia feministagatik barnebildutako balioak. Hurrengo adibidea jartzen dute: prozesuaren bitarteko berbiktimizazioa, informazioa faltaren edo prozedimenduen argitasun faltaren ondoriozko erabaki azkarregiak, prozedimendu berei emakume edo adingabeei baino garratzi handiago emanez.

Profesionalek azpimarratzen dute esku-hartzea indarkeriaren biktimekiko arretaren parte bat gehiago izan behar dela, ez esku-hartzearen erdigunea. Gizarte esku-hartzearen erdigunean pertsonak kokatu behar dira, gure ekinbidea boteretzearen bidezko emantzipazio prozesuetara bideratu behar dugularik, eta emakume bakoitzera eta bere konplexutasunera egokituko den ikuspegi intersektional batera. Bere kolaborazioan Mugarik Gabe ondorengo egin beharra adierazten du: *“Arretaren fokatzea aldatu: emakumeak dira garrantzitsuak, ez pairatzen duten indarkeria. Eskubide subjektuak dira, ez erabiltzaileak. Emakumeak pairatu duten indarkeriaz erruduntzen dituen eta erantzule bilakatzen dituen fokatzea deuseztatu”*.

Zentzu honetan esan beharra dago indarkeria matxistetaz hitz egiten dugunean ezin ditugula alde batera utzi indarkeria intersektionalak. Indarkeria matxistaren biktima den emakumea bestelako indarkerien intersektioaren erdigunea izango da, beste zapalkuntza sistemetatik eratorritako indarkeriena, algia (arrazakeria, heteropatriarkatua...), kasu bakoitza gurera heltzen den momentutik jaramon egin beharrekoak, diagnostikoaren momentu beretik eta emakumearen esku-hartze prozesu guztian zehar.

Eztabaidaren beste puntu bat indarkeria honen biktima diren emakume eta adingabeek jasotzen duten arreta eta laguntzaren ingurukoa da (lege mailan adingabeak ere indarkeriaren biktima zuzenak bezala aitortuak izateko aldaketa bat egiten den bitartean, aitorten honek ez dauka isla zuzena eskaintzen diren zerbitzuetan). Kasu batzuetan, errekurtsioak, indarkeria

pairatu duten emakumeentzako egoitzak kasu, emakumeen eskubideekin kontrajarriak diren esku-hartze bat burutzen dute.

Gai honen inguruan, parte-hartzaileek hausnarketarako datuak ematen dituzte, gako ezberdinak zerrendatuz. errekurtsioen egitura, barne legeria, kudeaketa edo bitartekoen faltak zelazalantzan jartzen ez den adierazten dute. Honek eragiten du entitateei egokitutako funtzionamendu bat mantentzeari garrantzi handiagoa ematea, kasu askotan balio patriarkaletan oinarritzen direlarik, alegia (emakumeen mugimendu eta portaerak kontrolatzen ditu, promozio pertsonalerako aukera ematen zaie bera bakarrik adingabeen jabe egiteko den heinean, baina kontziliazio neurriak bermatu barik, alde batera usten dira jasandako indarkeriei gailendu ahal zaizkien bestelako gizarte eskusiorako faktoreak, beste egoera batzuen artean).

Ildo berean Mugarik Gabek ondorengo adierazten digu: *“emakumeak errekurtsioetara egokitu daitezzen behartzen da, eta ez alderantziz, “gidaliburu-biktimak” izan daitezzen eskatuz, sumisoak izan daitezzen eta sistema eta inposatutako arauak onartu ditzaten”*.

2.4. Legearen inguruko hausnarketa⁸

Lehenengo momentutik onartzen dute profesionalak legea lehen mailako aurrera pauso bat bezala, ikusarazterako eta oinarritzko erreminta bat bezala, indarkeriaren kontrako borrokarako, baina biktimak den pertsona hori laguntzeko ere. Legearen aplikazioan ordea bat egiten dute iritziek bere gaur egungo eraginkortasun faltan eta beharrezkoa duen berrikustean.

Bildutako hausnarketak bat datoz ere Marta Doladok bere ponentzian bertan esaten zuenarekin⁸: *“Adierazitako intentzioa kale egiten du Legearen xederi dagokionean. Bere lehen artikuluan bere babesa bikotearen edo bikote ohiaren partetik jasandako indarkeriaren emakume biktimitara mugatzen du. Horrela, ez du hartzen ezta familia barnean eman daitezkeen bestelako indarkeria mota batzuk, beste gizonezkoengandik etorritako edozein emakumeren kontrako indarkeriak adibidez. Ezta beste eremu batzuetan ematen dena, bizitza soziala (sexu eraso edo abusuak, genitalen ablazioa, emakumeen trata, prostituzioa...) edo lan mundukoa”*.

Eztabaidan agertzen den lehenengo gauza legeak indarkeria mota guztien aitortza ezari dagokionez duen gabezia da. Hori azpimarratzen dute diskriminazio anitzean eta bazterketa erdi-larrian lan egiten duten profesionalak. Euren lanetan askotan indarkeriak ohiko eskemei erantzuten ez diotela nabarmentzen dute. Aniztasun funtzionalaren adibidea jartzen dute, zeinean ohikoagoa da aita batek indarkeria edo abusua eragin diezaion alabari, edo zaintzaileek maila ezberdinetako ahaidetasuna duen emakume baten kontra, biak indarkeria patriarkala direlarik, bikote barneko indarkeria matxista baino. Edo aniztasun sexualaren kasua, zeinean indarkeria matxistak ez-normatibotasunarekin harremandutako moduak hartzen dituen, baina aldi berean heterosexualitatearen kasuan bezain matxista den. Gabezia honek ez dauka soilik eragina arlo juridikoan, politikoan eta esku-hartze sozialaren arloan ere bai. Garrantzitsua da azpimarratzea, ustez tratatu txar egoera bat pairatzen duten emakume guztiei arreta ematen zaien, salaketa bat izan ala ez, edo babes agindu bat izan ala ez, errekurtsioetarako sarbiderako maila ezberdinetan jartzen ditu, baina bizitza berreraikitzekeo prozesurako laguntzari begira ere bai.

⁸ Ley Integral contra la violencia de género. Única puerta para una realidad compleja. Marta Doladoren ponentzia, Azulaneko abokatu feminista, Feminismoa, Indarkeria Matxistak eta Gizarte Esku-Hartzea Jardunaldia. (2016/11/11) <https://www.youtube.com/watch?v=luD6qXRZntA>

Kasu gehienak ez dira administrazioen menpe dauden zerbitzuetara heltzen, eta heltzen direnetatik badaude asko, problematika bikoitzekin adibidez, arreta ematen zaizkienak. Ez dago zaurgarritasun larriko faktoreak dituzten beste diskriminazio ardatzekiko interseksionatzen duten errealitateei zerbitzurik ematen diotenik (politoxikomania, eritasun mentala, prostituzioa, kartzela, etab). Hauek hartzen dituzten eta gainezka egiten duten erakundeetara bideratzen dira. Aldi berean entitate eta zerbitzu hauei ez zaie dagokien balioa ematen. Etorkizun zalantzagarrria dauka bere ezegonkortasuna dela eta.

Mugarik Gabetik ondorengoa esaten digute: *“Orain arteko joera berehalako osoko arreta administrazioaren betebeharra zela pentsatzea zen eta erakundeak horren osagarri besterik ez direla. Lurralde batzuetan kanporatzen ari da arreta hori, asoziazio eta profesionalengan, baina zerbitzu enpresetan ere (honek dakarren ikuspegi aldaketarekin). Kanporaketa hau prekaritatean oinarrituta egiten da (nahiz eta prekarioratasun hau administrazio barruan ere eman)”*.

Atal honi bukaera emango diogu indarkeria hau pairatzen duten pertsonen arreta emateko helburuan legeak aurkezten dituen gabezien inguruan Marta Doladok uzten dizkigun hausnarketekin: *“Hala ere indarkeria matxistaren errealitatea zabalagoa, konplexuagoa eta estrukturalagoa da gai hau jorratzen duen legea baino.*

Nazioarte zein Europa mailako legeriari so eginez, genero indarkeria emakume izate hutsagatik emakumeen kontra ematen den giza eskubideen urraketa bat bezala hartu behar dugu, edota maila neurrigabearen eragiten diena genero arazoietan oinarritutako diskriminazio ereduengatik bideratutako gizarteetan. Indarkeria hori bai eremu publikoan zein pribatuan ematen da, eta bai eragile estatal zein partikularren eskutik. Ez da familiaren edo bikotearen eremura mugatzen, nahiz eta batez ere eremu honetan ematen den. Indarkeria hau larriago bilakatzen da bereziki zaurgarriak diren sektoreetako emakumeengan, horregatik eman beharko litzateke erantzun bat diskriminazio anitzen aurrean.”

2.5. Interseksionalitatea⁹

Beste alde batetik, esku-hartzea ez-eraginkorra dela uste da, eta ez duela emakumeekin konektatzera heltzen ez bada pertsonaren errealitate soziokulturaletik abiatuta eraikitzen, ez baditu bere balio eta lehentasunak kontutan hartzen, ez badu presente zelan eraikitzen duen bere harreman mundua eta bere komunitatearen garrantzia. Gure partetik emakume hauen mendekotasun jarrera hartze bat egiten ez badugu.

“Leku guztietara laguntzen duzu, mundu guztiari deitzen diozu, edonora bidaltzen dute... eta ibilbide guztia egiten duzu berarekin, baina emakume horrek, bere etxean, bere bizipena lantzen joan da eta zuk, bitartean, lantzen joan diozu bere indarkeria historia, botereteaz hitz egin diozu, eskubideez hitz egin diozu... eta esan ahal dizu: belarrondoko bat ematen baditu horrek ez du esan nahi maite ez nauenik. Eta zelan apurtu hori? bidetik emakumeekin egiten dugu hori barne... garrantzitsua da ere beste begirada hori ikustea”.

⁹ Interseksionalitatea, Kinberlé Williams Crenshaw (1989) aktibistak sortutako kontzeptua. Genero beste nortasunekin zelan gurutzatzen den ulertzeko, aztertzeko eta erantzuteko erreminta analitiko da, eta zelan bidegurutze hauek zapalkuntza eta pribilegio esperientzietara laguntzen duten. Analisi interseksionalaren helburua identitateen gurutzaketaren ondorioz ematen diren desabantaila eta diskriminazio motak azaltzeko helburua du. Arrazakeria, patriarkatua, klase zapalkuntza eta diskriminazio beste sistema batzuk zen ezberdintasunak sortzen dute eta zelan hauek emakumearen egoera estrukturala ezartzen duten. Testuinguru historiko, sozial eta politikoak jartzen ditu kontutan. Analisi interseksionala planteatzen duena da ez dugula zama handituko duen nortasunen konbinaketa bezala, baizik eta esperientzia ezberdinak sortzen dituen bidegurutze bat bezala.” Asociación para los derechos de la Mujer y el Desarrollo.

Bazterra deritzon horietako emakumeekin lan egiten dugunean adibidez, bazterretako edo munduko bestelako lekuetako kulturetako emakumeekin, kulturaren faktorea jartzen da horren ulermenerako erdiguneko faktore bezala, baina indarkeria matxistekin duen harremanarena ere bai. Ursula Santa Cruzek, Bidesecaren (2010) hitzetan argitzen digun bezala: *“emakumeak mendebaldeko gizarteetan mendebaldekoak ez diren gizarteetako sistema patriarkalaren biktimak dira”*. Jarraian esateko: *“diskurtso hauek emakume etorkinekiko ikuspegi finko eta mugiezin baten kontu ematen digute, ez ditu kontutan hartzen baldintza sozioekonomikoak, lan baldintzak, politikoak, ezta prozesu historikoa, ez du zalantzan jartzen munduko zein tokitan ematen den zapalkuntza, nor(tzu)k zapaltzen du(t)en eta zapalkuntza hau zein mekanismoren bidez ematen den (Grosfoguel, 2013)”*.

Ezberdintasuna kulturartekotasun parametroetatik aztertuko eta barnebilduko den esku-hartze bat garatu ahal izateko, ezinbestekoa da dominazio egituren zalantzan jartzea, baina emakumeen errealitatean interseksionatzen duten diskriminazio ardatzak ere. Ondorengo adibidea jartzen digu Úrsula Santa Cruzek: *“Espinosak (2014) proposatzen duen genero arrazakeria kontzeptuaren definizioak azalarazten duenez, arraza eta klasea behe mailako ezberdintasun bezala ikusiak diren heinean emakumeengan, emakumean barnebiltzen dituen bizitza soziala eta mundua antolatzen eta definitzen bukatu duten dominazio sistema estrukturak sortutakoak izan direla estaltze dute”*.

Funtsezkoa bezala baloratzen da emakumeekin aurrera eramaten ari den lana ikuskatzea, administrazio eta komunikabideetatik behin eta berriz biktimaren rolean kokatzen baitzaie. Hori ez da dagokien tokia. Esku-hartzea paternalismora, infantilizaziora eta gainbabesera bideratzen baitu. Boteretzeko estrategia bezala ulertzen dugun horretatik egin behar dugunaren norabide guztiz kontrakoan doa eta ikuspegi feminista izan beharko lukeenaren oso urrun kokatzen da.

Profesional batek adierazten digu: *“Biktimaren ikuspegitik esku-hartzen dugu. Biktima emakumea kokatzen dugun abiapuntutan horrekin zerikusia dauka, eta hori ez da bere lekua”*.

Eztabaidan eta hausnarketetan parte hartu duten profesionalak ideia bat azpimarratzen dute: ez legean, ez ekintza planetan, ez zerbitzuetan, ezta esku-hartze prozesuetan ere, ez dute interseksionalitatearen ikuspegia txertatuta. Euren iritziz gizarte esku-hartzearen eremuan, profesionalen interseksionalitatearen inguruko formazioa eza dute, estrategia, metodologia eta ikuspegi hau praktikara eramatearen inguruko zalantzak eta ezjakintasuna existitzen da. Nola burutu, orduan?

Beste alde batetik, kontraesan bat bezala ulertzen dira instituzioen eta arautegien aldetik etortzen diren eskakizunak eta hauek betetzeko beharrekoak diren konpetentziak garatzeko dagoen bitartekoen gabezia, gizarte esku-hartzearen interseksionalitatea bermatze aldera, eta ez indarkeria matxistari dagokionez bakarrik, baizik eta esku-hartzearen orokortasunean.

Hala eta guztiz ere, eta orokorrean, profesionalak kontzeptuaren tamaina ulertzen dute interseksionalitatean oinarritutako praktikatik eratorritako adibideak jartzerakoan. Oinarritzko bezala ulertzen dute estrategia hau pertsonetikiko esku-hartze prozesuak aurrera egin dezaten.

Zentzu honetan Itziar Canterak horrela diosku:

“Especializazioaren eta individualismoaren gizarte matxista honetan, interseksionalitatea eraldaketarako erreminta giza, guztiarekin agiten du talka, ez bakarrik aldarrikatzen duen aldaketarekiko erresistentzia berarekin, baita boterearen egitura hierarkikoekin, erakunde bakoitzaren hierarkia profesionalekin edota departamentu, entitate edota administrazio bakoitzaren konpetentziarekin.

Interseksionalitatea, berdintasunerako eraldaketa instrumentu bezala, eta jarrera eta fokatzeko aldaketa bezala, pertsona askorengatik ezagutua izan behar da oraindik, balioan jarri behar da, eta azaldua izan behar da ere bai. Errealitatean bilakatzen joan dadin, legeen adierazpenetatik eta esku-hartze politiken definizioetara, protokoloengatik eta eremu ezberdinen erakunde eta euren politiken, estrategien eta esku-hartzeen programengatik barneratua izan dadin.

Ezinbestekoa da maila guztietan azaltzen eta ezartzen joatea, beharrezkoa da horretan errekursoak inbertitzen jarraitzea.”

2.6. Prebentzioa

Profesionalen hitzartzeen azterketatik ondorioztatu daiteke gizarte esku-hartzeak ikuspegi hezitzaile batetik lan egin behar duela, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak sustatu, balioetan, jarreretan eta pertsonen arteko, pertsona barneko zein komunitatearekiko portaeretan. Honek, une oro, prebentzioaren eta esku-hartzearen aurreiazkoa pausoa izan beharko litzatekeen kontzientziazio beharrera garamatza.

Indarkeria matxistetara bideratuta, bai prebentzioa zein esku-hartzea ezin da soilik urgentziatzeko esku-hartzean oinarrituta egon, baizik eta erabakitzeak hartzearen prozesuaren bitarteko laguntza etengabea, eta geroz eta askatasun eta autonomia espazio handiagoetarako sarbidean.

Prebentzioa ez da indarkeriak ikusaraztea, mikro edo makro matxismoak informazio edo adibideen bidez identifikatzea soilik, ekintza oso baliagarriak baina era bat urriak. Lan egiten dugun pertsonekin, profesionalok egin behar dugun era berean, euren burua berarekiko konexio prozesu propioa ere eraman behar dute eta, euren errealitatek, nortasunetik eta subjektibitatek nahi luketen guztia deseraikitzen joateko beharrezkoak diren neurriak hartzen joan.

Hausnarketa honen ildoan prebentzioaren kontzeptua bera jartzen da zalantzan: “prebentzioa eraldaketa sozialaren sinonimoa izan behar du eta, ondorioz, feminismitik landu beharko litzateke”. Indarkeria matxista zuzenaren prebentzioa lantzea baino, egin beharko litzatekena da osasunerako, tratu onaren kultura eta bizitza onerako hezi, norbanakoaren askatasun eta autodeterminazioan oinarrituz. Harremanen eremua jartzen da adibide bezala, ez da bakarrik lan egin behar norekin harremandu behar zaren ala ez, edo nor maitatu behar duzun eta nola. Prebentzioa norbanakoarekiko maitasunarekin hasten da, norbanakoaren potentziala eta nahi, gurari eta espektatiba propioekiko errespetua indartuz.

Etika feministan oinarrituta heziz, ez litzateke beharrezkoa izango etorkizuneko adin konplexuagoetan esku-hartzea, nerabetasuna kasu, zeinean jada aldaketa hori taldearen edota nagusi diren balio maskulinoen kontra joatea bilakatzen den, nerabea berarentzako arriskua suposatzen duena. Euren berdinegatik errefusatuak izateko beldur izugarria duten eta helduekiko errefusa une oro praktikatzuten duten adina, alegia.

Eztabaida eta hausnarketa prozesua aurrera doan heinean edukiz betez doa prebentzioaren kontzeptu hori, parte hartzen duten profesionalen eskutik. Esan beharra dago, ordea, lehenengo momentuen prebentzioa kontzeptua ikuspegi feminista batetik definitzeko zailtasunak badaudela.

Datu hau baieztatua ikusten da inkestaren datuei so eginez, zeinean 108 pertsonetatik bakarrik 3 eman dute azalpen txiki bat prebentzio bezala ulertzen dutenaren inguruan, eta hauek gainera hezkuntza formalarekin lotuta eta haurtzaro zein nerabezaroarekin lotuta batez ere.

2.7. Esku-hartzea: emantzipazio prozesuak boteretzea estrategiatzat hartuta

Profesionalek ematen ari den zerbitzuaren inguruko hausnarketa egiteko gonbidapena luzatzen dute: zertan datza esku-hartze prozesua eta norantza bideratzen ditu emakumeak. Adibide bezala ustartzen diren lan mundurako sarbide prozesuak jartzen dituzte. Hauek, ez da bakarrik rolak eta estereotipoak birproduzitzen dituzten sektoreetara bideratzen direla, prekarietatean murgildutako eta aurrerapenerako inongo aukerarik gabeko sektoreetara, alegia (menpokotasuna duten pertsonen zaintza, etxeko zerbitzua, garbiketa...). Hauxe, emantzipatzaile kategorian jartzen ditugun prozesuekin lotuta aztertzen diren beste askoren arteko adibide bat besterik ez da.

Gizarte esku-hartze berari zabalegia egiten zaion kontzeptua da, batez ere emakumeak eta euren menpeko familiak diren kolektibo bat bezalako batentzako, ez dutenak biziraupenagatiko borrokaren espiraletik irtetea lortzen eta, indarkeriaren biktimak izateaz gain, ez dutela aurretiazko errekurtso propio eta nahikoak euren beharrian oinarritzkoenak betetzeko.

Honek, aldi berean, sustatzen ari garen boteretze motaren inguruan eztabaidatzen da. Prozesu hauetan gizarte boteretzea kontutan dugun ala ez; boteretzea zer denaren benetako kontzientzia dugun ala ez eta ez zaigun ahazten honen oinarritzko dimentsio bat sistema emakumeen, pertsonen eta giza-taldean aktibazioa dela, espazio publikoa ere okupatu dezaten: "Aktibistak bilatzen ditugu, sistema eraldatu nahi duen jendea. Nik nire lanean esaten didana zera da: kaleak okupatu. Okupatu. Kaleak okupatu behar dira".

Boteretzea beste kontzeptu erraldoi bat da, ez baditugu gure gizartearen partetik, gure aldarrikapenak eta eskubideen lorpenerako ekintzak, enpatiaz eta elkartasunetik hartuak izateko baldintza sozialak sortzen. Herritartasuna eskubide eta betebeharrak bat da. Aitzitik, ez badugu enpoderamendu prozesuen dimentsio soziala uztartzen, ez diezaigun horrela deitu. Bestelako esku-hartze bat izango da, baina ez enpoderatzailea. Beste zintzotasun ariketa bat egitea eskatzen da, beraz, gizarte esku-hartzean. Zintzotasuna eta koherentzia. Eta, nola ez, erantzukizunak hartzearena, lan egiten dugun pertsona horiekiko dugun erantzukizuna, ezin baitugu amildegira jaurti. Gizarte dimentsioa lantzen badugu, komunitate mailan ere inplikatu behar gara, estaldura emanez, emakumeen, adingabeen, eta pertsona eta gizatalde ororen eskubideak bermatuko dituzten espazio benetan inklusiboak sortuz. Gure lan eta ekinbide profesionalaren dimentsio politikoa azpimarratzen da. "Profesionala de politikoa ere bada".

Testuinguru honetan kontutan hartu beharko genukeen beste gai bat pertsonen etorkizunera begirako ikuspegia da. Ea anbizio handiko esku-hartze bat buru beharko genukeen eta posibilitatagoa izan behar den. Aukera guztien inguruko informazioa eman behar dugu eta gero pertsona bera izatea aukeratzeko duena? edo bere errealitate hobeto egokitzen den informazioa ematera mugatzen gara?. Azken hau da egin ohi dugu helburu errealistagoak ezartzera begira, baina, honek ez du esan nahi esku-hartzeetan partenalistegiak izatea?

Orokorrean, emakumeak euren dimentsio guztietan orientatzeko momentuan ezartzen diren helburuak berrikustearren beharra planteatzen da. Guzti hau hobeto ulertu dadin adibide batzuk jarriko ditugu:

Subjektibitatea eta nortasuna: planteatzen den gauzetako bat lan egiten dugun emakume horiekin, euren bizitza prozesuen inguruan hartzen dituzten erabakiak baloratzeko momentuan prejuizio kulturalak abiapuntu bezala ez hartzea da. Úrsula San Cruzek bere kolaborazioan ondo azaltzen digun bezala: *"Migratutako emakumeen ahotsek zalantzan jartzen dute emakume zaurgarri eta babesgabeak bezala eraikitzen dituzten planetan, programetan, azterketetan, eta esku-hartzean edukitzen den diskurtsoa. Indarkeria honen zergatia patriarkatuari eta jatorrizko kulturari egozten diona. Emakume hauen kontakizunak baztertua*

den indarkeria arrazista bat ere uzten du agerian". Jarraian ondorengo galderan botatzeko: *"Zergatik emakume migratuen kasuan genero indarkeria bikote barneko indarkerian zentratzen da?; zergatik nabarmentzen da jatorrizko kultura eta patriarkatua eta bigarren maila batean uzten da helmuga diren gizarteetako ezberdintasun eta diskriminazioa mekanismoak?; Non daude migratutako emakumeen ahotsak?; Zer gertatzen da indarkeria instituzionala denean?"*.

Ama eta seme-alaben arteko harremana: emakumeak erruduntzen gehiegizko erantzule egiten dituzten hazkuntza estiloak, patriarkatuko gizarte rola erreproduzitzea suposatzen duena.

Familiaren konfigurazioa: ze motatako familiari zuzentzen diogun gure esku-hartzea planteatuz eta familia horrek bere osaketatik, sinesmenengatik, jarreraren eta portaerengatik, familia tradizionalaren balioei erantzuten dion ala ez (uste dugu gizarte esku-hartzeak pendiente duen asignaturetako bat familia patriarkalaren dekonstrukzioa dela, testuinguruaren arabera moldatu beharko dena).

Etxearen eta bizikidetasunaren eraikuntza: premiazkoa da etxeen berrikusketa bat egitea, bestelako diskriminazio ardatzen intersekzioaren bidez konfiguratzeko direnak, egoera ekonomikoa kasu. Ezin ditugu alde batera utzi ondorengoak bezalako egoerak: espazio edo osasun neurri gabeko etxebizitzak, pilaketa eta honen arriskuak, emakumeen eta adingabeen birgaitze prozesurako ezegokiak diren familiaren adarkadurak, etxegabetzeari edo euren burua kalean jotzeari beldurra, seme-alaben custodia galtzea...

Formazio eta lan mailako murgilketa: nora bideratzen dugu lan murgilketa eta zein da benetako motibazioa: lan sektoreak?; apustu posiblistak edo anbizio handikoak?; oinarritzko beharrak ase ahal izateko baina beti diru sarrera propioak laguntza ekonomikoekin osatu behar izateko?; edo kalitatezko lanbide duinak lortu ahal izateko formazio eta lan murgiltze bidean?.

Komunitate mailako harremana: gainera pertsona guztien maila berekoak izan behar diren eskubideen gozamenaz edo kondeszendentzia eta paternalismotik abiatuta?

Parte-hartze politiko eta soziala: Sustatu egiten da?; badu nolabaiteko zehaztapenik pertsonekin lan egiten duten entitateetan?; zer nolako pribilegio eta botere harreman izan behar dira kontutan pertsona guztien parte-hartzea loteslea izan dadin zerbitzuen, errekurtsioen eta erabaki politiko eta sozialen bilakaerarekin?

2.8. Gizarte esku-hartzea eta ekintza komunitarioa

Prozesu guztian zehar gizarte bitartekaritzaren eginkizun bikoitz bat agertu egiten da: pertsonekin egin behar den esku-hartzea eta komunitatearekin egin behar dena. Argi ikusten da zelan pertsonekin egiten den gizarte esku-hartzea eragin zuzena daukan euren ingurune hurbiletan.

Emakumeen kasuan etengabe ikusten dugu hau. Eurek dira bere afektuen kohesioa mantentzen dutenak, ardurak bere gain hartzen dituztenak, eta rol horretatik mugitzeko erabakia hartzen dutenean, gainerako pertsonen pribilegio galera eta eurretan duen eragina zuzena eta bat-batekoa da, pertsona eta instituzioena. Sistema beraren pribilegioak barne emakumea bere zaintzaile, ugaltzaile eta bere ingurunearen kudeatzaile rolean mantentzen denean, eta hori dena doan egiten duelarik. Emakumeak pauso bat aurrera ematen duenean, dema mugitzen da. Diskurtso handiek esaten dutena esaten dutela, bere egoerarekin apurtzeko pauso hau ematen duen emakumeak epe motzean, ertainean eta luzean ez du zailtasunak ez diren besterik aurkitzen.

Gizarte esku-hartzeak gizarte eraldaketan duen arduraz eztabaidatzen da. Itxuraz begibistakoa, eremuaren definizioan bertan barnebiltzen dena, baina entitateen eguneroko praktikan islatzen ez dena.

Gizarte esku-hartzetik ez bada komunitate mailako eraldaketarako esku-hartze bat burutzen, emakume horrek hartutako erabaki ausart horrekiko paralelo doana, tratatu txar egoera horrekin apurtzea ere arrisku garrantzitsuak ekarri ditzake emakumearen eta bere kargu egon daitezkeen adingabeen ongizaterako. Bizitza galtzeko arriskua barne. Gizarte esku-hartzearen ardura da bi lan horiek burutu daitezen: pertsonala eta soziala.

2.9. Eta gizonetik lana?

Bada interesa baduen eta oinarrizkoak diren hausnarketa ustentzuen eztabaidako beste gune bat: Gizonetik agin beharreko lana. Ez bakarrik erasotzaile diren gizonetik, baizik eta gizon guztietatik gizarte esku-hartze osoan. Adin guztietatik eta eremu guztietatik. Emakumeetik esku-hartzea eraldatuz joan da, baina gizonetik ez da mugitu. Ez generoen eta rolen deseraikipenetik, ez pribilegioen galeratik, ez feminisमतik.

Paradigma aldaketa bat burutu da emakumeetik esku-hartzean, boteretzea delarik oinarrizko estrategia. Baina ez da nahikoa, ez dauka eraginkortasunik batez ere diskriminazio anitzen biktima edo sarbide zaildua duten emakumeetik lan egiten dugunean. Beharrezkoa suertatzen da gizarte esku-hartze osoan ikuspegi eta estrategia aldaketa begiestea. Gizonetik egiten den lana birplanteatzea ere ezinbestekoa da. Edozein eremutan eta dela zein dela bere bizitza-fasea: “Emakumeetik lan egiten dugu, baina ez dugu familiekin lanik egiten. Eta horrek ere bere ondorioak baditu. Emakumeak boteretu nahi ditugu baina, non geratzen dira gizonetik? Emakumea etxera itzultzen da eta bere burua erabateko zorigaitz baten kontra bakarrik burrukan topatzen du”.

Profesionalek agendan jartzen dute gizonetik esku-hartzeko modua premiazko aldaketa bat behar duela. Feminismoa emakume eta neskatokien lotutako eremu soilera mugatzea akats bat baita. Feminismoa emakume eta gizonetik bideratutako justizia sozialeko proposamen politiko bat bezala ikusten badugu, gizarte esku-hartzearen praktika, bere osotasunean, errealitate hori bere gain hartu behar du, horrela ulertu ahal izateko pertsona ororen errealitatea, euren aniztasun guztietatik, eta gizartearena orokorrean. Bakarrik horrela planteatu daitezke patriarkatua erausteko, eta horrekin batera emakumeen kontrako indarkeriak, ekintzarako alternatiba ez-sexistak.

Mundu justu eta parekide bat lortu ahal izateko esku-hartu eta lan egin behar da, ez bakarrik emakume eta neskatokien, baizik eta pertsona guztietatik, bere adinaz, sexuaz, jatorriaz, kulturaz, orientazio sexualaz edo aniztasun funtzionalaz gain, ikuspegi feminista horretatik.

2.10. Aurrera egiten joateko urratsak

Osoko legeari dagokionez, Marta Doladok ondorengo hau adierazten du:

- 1.- Emakumeen kontrako indarkeria generoan oinarritutako Giza Eskubideen abusu bezala defendatua izan behar da.
- 2.- Giza Eskubideen urraketen aurrean Estatuaren “behar bezalako ardura”-ren printzipioa jaso beharra dago.
- 3.- Legearen ikuspegiak emakumeen boteretzea sustatu behar du, eskubide subjektu bezala, eta edozein motatako berbiktimizazioa akidindin.
- 4.- Errekurtso eta neurri ezberdinetarako sarbide eraginkorrei begira diskriminazio anitzak hartu behar dira kontutan.

5.- Legearen inplementazioarekiko ebaluazio iraunkorrerako erremintak sortu behar dira.

Gizarte esku-hartzean, euren artean sostengatzen eta elkar elikatzen duten hiru biolentzietan (zuzena, estrukturala eta kulturala) zelan heltzen zaien inguruko azterketa sakona egin behar da. Indarkeria Matxisten inguruan lan egiten dugunean ikuspegi global bat izan behar dugu, izan ere, patriarkatua bere osagaien gehiketa baino gehiago da, hau da, indarkeria patriarkala gure bikote harremanetan errepikatzen da, baina beste harreman sistema guztietan ere, familiarik hasita, laguntasun harremanetan, eta ingurune laboral eta komunitarioan. Ezin da begi-bistatik galdu indarkeriak gehitzen doazela, ez dira bata bestearen baztertzaila, elkarrekiko lotura eta harremana dute.

Honi harremanak lantzearen garrantzia gehitzen zaio: lotura afektiboa, emozioak eta euren garrantzia pertsonen berreraikitzean. Pertsonen nortasunerako eta subjektibitateko zein oinarrikoak diren afektuak. Ez da kontutan izaten edo bigarren maila batean uzten da tratatu txar zuzena lan egiten ez den kasu askotan. Afektuzko lan eta harreman loturak lantzen dira batez ere indarkeriarekin lotuta (bere edozein dimentsiotan: prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea) osasunari eta tratatu onari lotuta lantzea baino.

Tratatu txarrak ematen dituzten gizonekin egin beharreko lana azalarazten da, zeinekin feminismotik lan egin behar dugun. Gizontasunak zelan lantzearen inguruko hausnarketa bat eskatzen da, zer nolako eredu eman eta zelan inplementatu gizonekin egin beharreko lan hori, lan programetan, euren mundu razionalean, afektiboan eta emozionalean.

Indarkeriekiko esku-hartze eredu birplanteatu, indarkeriaren biktimentzako arreta zerbitzu eta errekurtsoak birpentsatu. Indarkeria matxistaren egoerak bikote, kide, ingurune eta emakumeen ideologia matxistak eraginduak badira, ezin dugu esku-hartze bat garatu euren diskurtso eta jardueratik eratorriak diren balio eta ideologia bera birpentsatu barik. Hau feminista izan behar da. Eta ez da.

Eragina duten benetako faktoreak berrikusi behar ditugu: gure erakundeak betetzen dituen boluntariora, gure sektoreak abiapuntu bezala duen paternalismoa, profesionalen egoerak, bertikalitatea eta pertsonak kontutan izan ohi ez dituen botere jardura. Sektore osoak premiazkoa du berrikuspen bat eta feminismoa izan daiteke norabide hori zehazteko erreferentzia marko bat. Auto-azterketa eta, batez ere, zintzotasun jardura bat egin behar dugu.

Indarkeria matxistetan burutzen ari diren esku-hartzeei dagokienez praxi txarrak eta praktika onak ematen ari dira. Batak zein besteak egiten joaten ari dira, ondo egiten ari denari errekonozimendurik eman gabe eta gaizki egiten ari dena berbideratzen saiatu barik. Indarkerien inguruko esku-hartzea ezin da zorte ona edo txarraren, faktore pertsonalaren, kasualitatearen edota faktore ezberdinen gehiketaren menpe egon, modu egokian edo ezegokian konpondu dadin.

Ezagutu beharra dago burutzen diren akatsak eta praktika onak ikusi ahal izateko, eta ez uzteko ezer ere ez zortearen esku. Teoria feminista praktikaren profesionalizazio eta sistematizazio prozesu honetan orienta gaitzakeen markoa izan daiteke.

Aldaketa pertsonalen garrantzia azpimarratu egiten da. Aldaketa txiki horiei garrantzia emateari, daukaten benetako balioa ematea hauen biderkatzea dakar, bizitza eredu bilakatuz. Ekintza hau espazio askotan inongo baliorik gabekoak iruditu daitezkeenak (etnozentrismo eta kondeszendentsiatik horrela begiratzen direlako), sarbiderako zailak diren komunitate edo komunitate baztertuetan, benetan arrastoa uzten direnak dira. Ezer ez da egun batetik bestera gertatzen, eta badakigu, baina alderantziz jarduten dugu. Pertsonak edo jokamoldeak

mendebaldeko pertsonok nolakoak izan behar diren arabera legeak, zerbitzuak eta esku-hartzeak aurrera egitea uzten dugu, eta hauen arabera epaitzen dugu, modu estereotipatuan eta profil zehatz eta itxiekin. Gure burua ere kabidarik ez duen moldeen arabera.

Indarkeriaren inguruko prebentzio, detekzio eta esku-hartzerako, lan egiten dugu pertsona horien nortasunean eta subjektibitatean oinarritutako balio eta jarrera sexisten diagnostikoa txertatu behar dugu. Euren kulturaren eta kolektiboaren sinbolismoa presente eduki eta zeharka lan egiten joan euren integrazioarako prozesuan.

Garrantzitsua da hiru eremu ezberdinetan egin beharreko esku-hartzea kontutan izatea: esku-hartze zuzena, kontzientziazio/formazioa eta aldarrikapeneko.

JARDUNALDIAREN ONDORIOAK

“Praktika feministarekiko aldaketaren beharrez kontziente izanda, gure lanaren bitartez eraldaketa soziala sustatu dezakegu, esku-hartze egemonikoari aurre eginez.”

“Existitzen den aniztasuna kontutan izan behar dugu ikusmolde feminista eta interseksional batetik, beharrezkoa den aldaketa estrukturala bultzatu ahal izateko”

3. Gizarte esku-hartzearen profesionalak indarkeria matxisten aurrean. Formaziotik kontzientzia hartzerara.

Atal honi hasiera emango diogu eztabaida espazio ezberdinetan eta profesionalen kolaborazioen bidez eztabaidatu eta hausnartu ziren gai garrantzitsuenak gogoraraziz.

3.1. Arazoaren edo konponbidearen parte gara? Garrantzitsua al da gizarte esku-hartzearen eremua indarkeria matxisten erauzketan?

Fase honetan ere kontsentsua izango da berriz ezaugarri nagusia profesionalen eta jasotako ekarpenen artean.

Sistema kapitalista eta heteropatriarkal beraren parte bezala, elkarrizketatutako pertsonak uste dute gizarte esku-hartzearen sektorea ez dagoela gizartearen portaera eskemetatik kanpo. Hau da, gizartean gertatzen dena, bere isla zuzena du gizarte esku-hartzean eta eremuko profesionaletan. Ondorioz, arazoaren zein konponbidearen parte dira. Zentzu honetan, oinarrizko eginbeharra da gizarte esku-hartzeak konpromezuak hartu eta bere burua feministatzat hartu dezan lortzea. Horrela emakume eta gizonentzako justizia sozialerako proposamenak eskaintzen dituen paradigma teoriko-praktiko horren estalpean lan egiteko. Feminismoa baita patriarkatuarekin bukatzeko gakoak eskaintzen dituen teoria bakarra.

Profesionalen argudiaketa jarraituz, hauek diote esku-hartzearen eremua arazoaren parte dela gizartean beran txertatuta dagoelako eta, aldi berea, konponbidearen parte ere badela indarkeria hau eta beste batzuk eragiten dituen sistema patriarkalaren haize kontra jotzen duen sektoreetako bat delako.

Arazoaren parte patriarkatua, bere balioak, botere egiturak, kontrol estrategiak sostengatzen dituen gizarte horren kide izateagatik. Ez bada balioen, sinesmenen, jarreran eta gizarte esku-hartzearen praktiken analisi eta hausnarketa prozesu bat sustatzen, ez ginateke patriarkatu horren agente sustatzaile bat gehiago baino izango eta, ondorioz, indarkeria matxista horiek eragiten dituen zergatien parte ere.

Baina konponbidearen parte da, profesionalek, lanbideak izugarriko neke eta higadura suposatzen duen arren (kontutan hartu beharreko zerbait ere) euren pertsona bera eta euren lanbidea hausnartzen eta feminismoaren bidetik hobetuz eraikitzen saiatzen direlako. Nabarmentzen dute lan nekagarria dela gure eremuak berak ezartzen dituen erresistentziak direla, eta azpimarratzen dute are nekagarriagoa dela marjinetan egon ohi diren emakumeentzat. Demostratzeko, integratzeko eta eraldaketa sortzeko esfortzuak biderkatu egiten dira beste emakumeekin konparatuz. Horrela den arren, euren esfortzuan dagoela onartzen dute “bestearen”, inguruaren eta sektorearen eraldaketarako motorra.

Esku-hartzearen profesionalak konponbidearen parte dira konpromezutik, inplikaziotik eta erantzukizunak bere egitetik lan egiten dutelako; euren lan eta egin beharren analisisa behar bezalako seriotasunez hartzen dutelako (txosten hau frogatzen duen bezala). Eta pentsamendu kritikotik eta jarrera proaktibo batetik egiten duelako. Profesionaletako baten hitzetan: “Bi aldeetan gaude baina justaposizioaren aldean kokatzen gara: konponbidearen parte gara, honek dakartzan ondorio guztiekin”.

3.2. Alderdi bezala jarrera hartze bat izan beharko genuke?

Erantzuna baiezkoa da. Feminismoarekiko eta indarkeria matxisten aurreko jarrera hartze personal eta profesionala beharrezkoa da profesionalentzako. Bi gaiak landuko dituen

kontzientziario eta formakuntza ekimen ezberdinen bidez lagundutako prozesu bat bezala heldu behar zaiola iritzi diote. Konponbidearen parte bilakatzeko, profesional bakoitza maila pertsonalean eta lantalde baten parte bezala (aurreko atalean hitz egindako guztiaren harira) kontziente izan behar da norbanako bezala, bai emakume zein gizon bezala, garatutako ezaugarri propioetatik, pribilegiadun edo bazterretako pertsona bezala, eta bere nortasunetik esku-hartzeari zer ekarpen egiten dion identifikatu.

Ea ezaugarri horiek parekidetasunean oinarritutako izaera forma berrietarako eredu diren edo rolak betikotzen dituzten: “nire joera zaintzaile izatea da, zaindu, zaindu, zaindu. Hau arazoaren parte izan daiteke. Aldi berean laguntza eske datorrenari protagonismoa ematen diot. Hau konponbidearen parte da. Bi ezaugarri hauek barneratuta ditut”. Praxi profesionalean eragina izango duten auto-ezagutza prozesuak hastearen garrantzia azpimarratzen da behin eta berriro, eta eremu profesionaleko bizi kalitatearen bermatzaile izan daitezen, baita onegite profesionalerako ere.

Horretarako baldintza etengabeko formazio-kontzientziario prozesu bat egitea delarik, oraindik ere, gizarte esku-hartzeko profesionalek ez baitute feminismoaren eta indarkeria matxisten inguruko kontzientzia nahikoa.

3.3. Lan mahaietan interlokuzio eta aholkularitza organoa izateko zilegitasuna daukagu?

Erantzuna aho batekoa da: Bai lehenengoari eta Bai bigarrenari ere.

Aitortzen da sektore honek, gabezia guztiak kontutan izanda ere, indarkeria matxistekin lotutako beste sektoreak (osasuna, justizia, komunikabideak...) baino kontzientzia eta motibazio handiagoa duena dela, baina klase kontzientzia falta duela ere. Ez du sektore bezala ekiten, eta hau ezinbestekotzat jotzen da. Eta ez gai honetan bakarrik, baizik eta ez duela egiten ezta bere gizarte mailan duen benetako pisua aldarrikatzeko ere, bere lan baldintzei dagokienez, batez ere eskatzen duen inplikazio maila hain altua denean, eta zeinean lan egiten duten pertsonak aktiborik garrantzitsuena diren, bere lanaren lehen onuradunak ere: “sektore bezala konpromiso handiagoa izango bagenu indar handiagoa izango genuke interlokutore politiko bezala”.

Pentsamendu ildo honi jarraituz, gizarte esku-hartzea eraldaketa politiko eta sozialerako agente bezala aitortua izan beharko lukeela pentsatzen dute. Estrategia nagusia boteretzea bada, prozesu hauek gizarte mailan sustatzea maila pertsonalean sustatzea bezain garrantzitsua da, horregatik hartzen da horrenbesteko erantzukizuna zapalkuntzaren ikusaraztean eta hau sostengatzen duten faktoreen desaktibazioan.

Lankidetzan egindako lanean eta sinergia feministen eraketan dago sektore bezala eraldaketarako eta patriarkatuaren kontra borrokatzeko potentziala. Esku-hartzea eta feminismoa eskutik helduta joan behar dira.

Profesional mailako eta entitate mailako jarrera hartzeari dagokionez, beharrezkoa ikusten da, naiz eta praktika feminista oraindik ere eraikitze bidean egon. Aldaketarako norantzan bideratzen gaitu. Zure burua kokatzeak balio eta lan ardatzen ulermena laguntzen du lan talde hauetan lan agiten dugunontzat, baita nor zaren eta nondik lan egiten duzun edo zein komunitateren parte zaren. Feminismoa nabarmentzen da jarrera hartze eta horren ardatz bezala egituretan eta pertsonen arteko botere harremanetan eragina izan ahal izateko.

Jarrera hartze horren inguruan hausnartzen denean, hau zelán burutzeak daukan garrantzia aztertzen da, izan ere barneratzailea izan behar da (inoiz ez asimilazioan oinarrituta, baizik eta aniztasuna horren oinarritzko ezaugarria izan dadila). Horretarako marjinetan lan egiten duten emakumeak hartu behar dute gizarte esku-hartze feminista eta intersektionalerako

prozesuaren erdigunea. Erreferenteak sortuko dituen jarrera hartze argia eta sendoa izan behar da, baina ez gainerako emakume profesionalak eta lan egiten dugun horiekin baldintzatuko dituzten jarrera hartzeak, adierazpen edo ekiteko askatasuna kenduko diena. Ezberdintasuna onartuko duen jarrera hartzea izan behar da, bakoitzaren zilegitasuna eta emakume guztien eskubideekin harreman konstantean. Feminismo ijitotik ondorengo ekarpena egiten da: “feminismo ijitoa ikusezina da eta ez da berataz hitz egiten. Ijitoak ez diren emakumeak berea egin eta euren borroka ere badela esan arte...”. Behin eta berriz Etika Feministaz ari gara.

Orokorrean, jarrera hartze hori aniztasunaren errespetutik abiatu behar da, emakume guztien aitortzatik eta emakumeen oinarrizko eskubideen borrokatik, haurtzaroaren eskubide eta giza eskubideekin harremanean. Oinarrizkoa da kontutan hartzea patriarkatuak indarkeria anitzak eragiten dituela eta feminismoak direla hauek ikusarazi eta aurre agiten dietenak. Azkenik, gaur egungo sistemak harremanetan jartzen ditu zapalkuntza ardatz eta sistema ezberdinak, eta ezinbestekoa da hauek identifikatzea eta gizarte esku-hartzeak kontutan hartu ditzan esku-hartze horretan aurkezten diren errealitate konplexuak.

Horretarako, gakoetako bat, sororitate eta marjinetako feminismoekin eta sarbide konplexuko komunitateekin sareak eta espazioak sortzea da. Hortik abiatuko da interseksionalitatea. Nabarmentzekoa da planteamendu honek inplizituki dakarrena dela ez dugula aurreikusi edo zalantzan jarri behar lehentasunen ordena, izan ere, askotan ez da bat etorriko hegemonikoa den gure testuinguru kulturean daukagun interpretazio markoarekin. Eta oraingoan ere azpimarratzen da urgentziaz lan egitea ez dela egokia, azkartasunez lan egitera eta erabakiak hartzea eramaten baikaitu.

Garrantzi handia ematen zaio maila pertsonalean egindako ibilbide bat izateari. Zelan lan egiten duzun, islapenak, epaiketak eta gehiegizko esku-hartzea ekiditeko zer egiten duzun identifikatzearen inguruko introspektzio lan bat. Horrela bakarrik izango gara koherente pertsonen askatasunean eta euren autodeterminazioarekin oinarritutako aldaketa bat sustatzearen printzipioarekin.

Aurkitzen garen testuinguru zehatzean sakontzen da. Profesionalek azaltzen dute zelan gure herrialde honetan bada profesional asko gizarte esku-hartzean lan egiteaz aparte mugimendu sozialekin lotura duten. Feminismoaren bultzatzaileak dira bai eremu publiko zein pribatuan. Gizarte esku-hartzean, ekintza komunitarioan, salaketan eta aldarrikapenean. Guzti hau balio gehigarri bat da, eta ez bakarrik indarkeriekiko arretarako konpetentziak handitzen dituelako, baizik eta profesionalak komunitateetako errealitatearekin harremanetan mantentzen dituelako, gizarte izaerarekin eta motibazioaren handitzea ere dakarrelako. Nahitaezko interlokuzioa gara gai guzti honi dagokionez prebentzio, detektzio eta esku-hartzean.

“Ordu estrak egiten ditugu, etengabeko formakuntzan gaude, horretan doakigu bizitza... orduan hori da nire ustez potentzial izugarria ematen diguna, eta gure ordutegitik kanpo pila bat gauza egiten ditugu, eskatzen zaigunaren gaintetik, eta hortik da tiratzen ari den tokitik... hortik da gure erakundeetan genero ikuspegia sartzen ari den tokia, nik ezagutzen zaitut eta zuri dei egiten dizut honetan lagundu nazazun... eremu informaletik ere asko tiratzen dugu bizitza errealeko kasuak konpontzeko. Potentziala daukagu, gertatzen dena da horretan aurrera egiten jarraitu beharko genukeela...”.

Interlokuzioari dagokionez nabarmentzen da ez dela nahikoa administratibotik erakunde batzuetara edo besteetara deitzea, baizik eta sektore bezala jardun beharko litzatekeela, gure eremuak hausnarketa, ikerkuntza eta interlokuziorako espazio propioa izan beharko luke feminismoarekin eta indarkeria matxistei dagokienez, adibidez. Erantzukizuna gurea da.

Baina prozesua, naiz eta ez izan lerro zuzen bat, behetik gorako norantzan hasi behar da, indarkeria matxisten gaien interlokuzio politikoaren parte izan arte. Bai, bitarteko, denbora eta errekurtsio gabezia egon arren, gizarte esku-hartzeko emakumeak indarkeria hori pairatzen dutenen eta gauzatzen dutenen errealitatea ezagutzen baitugu, eta bizitzaren birgaitze eta esku-hartze prozesuen sustatzaileak, interseksionalitate eta feminismotik. Bai gaur eguneko beharren eta gabezien inguruko diagnostikoan konpetentziak izateagatik, bai prebentzio, antzemate eta esku-hartzearen inguruko konpetentziak izateagatik, bai marjinetan dauden emakume eta kolektiboaren inklusiorako ibilbide askatzaileak sustatzeagatik.

Indarkeria matxistetan egiten den gizarte esku-hartzearen balioa handitzea beharrezkoa ikusten da. Giza eskubideen aldeko borroka ari gara, bizitzetaz ari gara. Emakumeen sektore bati buruz ari gara, dinamika konplexu batekin, baliorik ematen ez zaiona eta zaintzen ez dena, bere langile propioetatik hasita. Bere lana aitortzea, pertsona eta komunitateen bizitza baldintzan duen eraginaz jabetzea eta merezi duen zentralitatea ematea gudan hasi behar da.

Planteatzen den lehenetarikoa gauza bat, guzti hau sustatzeko dirua, denbora eta pertsonak inbertitzearen beharra da.

Gizarte mailako benetako eraldaketak sustatu nahi baditugu gizarte horren parte diren eragile guztiak izan behar ditugu kontutan. Gainera eragile guzti horien artean errealitate guztiak irudikatuta egon behar dira, marjinetan aurkitzen diren emakumeak presente ez baditugu gezurrezko irtenbidea izango litzateke. Ez bakarrik indarkeria matxistarekin lotutako errekurtsio eta zerbitzuekiko sarbideari dagokionez, baizik eta parte-hartze eta erabaki hartze prozesuen inguruan hartu beharreko neurriei eta burutu beharreko ekintza zehatzei dagokienez, euren burua islatuta ikusi behar duten eta identifikatuta sentitu behar diren horiek.

Jardunaldiaren ondorioak

“Feminismoa maila pertsonalean eta profesionalean. Benetako inplikazio eta eragina izanda posible da aldaketa bat lortzea”

“Beharrezkoa da etengabeko ebaluaketa bat entitateetan. Ideologia feminista eremu guztietara eramatea”

“SENTITU, PENTSATU, EKIN!”

4. Ondorio eta proposamenak

Egokiagoa iruditu zaigu atal bakoitzeko hausnarketa eta proposamenen ondorioz ateratako alderdi garrantzitsuenak atal bakoitzaren bukaeran islatzen joatea. Horrela egin dugu “Aurrera egiten joateko urratsak” puntuetan lehen, bigarren eta hirugarren ataletan.

Txostena bukatzen joateko, gizarte esku-hartze feministaren marko teoriko-praktiko hori eraikitzen joateko 2017an kontutan izango ditugun elementuak laburbilduko ditugu, ezinbesteko lehenetsun bezala ikusten den gizarte esku-hartze feminista hori.

Teoria feminista gizarte esku-hartzerako ezin besteko marko teorikoa da. Feminismoa patriarkatua eta eragiten dituen indarkeria mota guztiak, eta bere zapalkuntza egitura anitzak, erauzteko beharreko marko teorikoa da.

Gizarte esku-hartze feminista hori zelan eraiki planteatuko duen hausnarketa prozesu bat irekitzea ezinbestekoa da. Modu kolektiboan egin behar da, profesionalen eta netitateen parte-hartzearekin.

Lankidetzan oinarrituko den sare-lan hau ondorengo helburuak jarraituko ditu:

- Feminismoarekiko jarrera hartze komuna.
- Gizarte esku-hartzea Etika Feministaren noranabidean jarriko duen elkarrekiko bidea.
- Gizarte esku-hartze feminista baten eraikuntza.

Gizarte esku-hartzearen sektorean feminismoarako biraketa bat emateak egitura eta sistema, pertsona eta harreman, estrategia eta metodologia guztiak barnebidu behar ditu, baita esku-hartzea bera ere.

Prozesu honek, beste printzipio batzuen artean, ondorengoak hartu beharko lituzke:

- Horizontaltasuna eta gardentasuna.
- Bizitzaren jasangarritasuna.
- Emakumeen, haurtzaroaren eta giza eskubideen errespetua.
- Indarkeria matxisten ikuspegi zabala.
- Interseksionalitatea.

Entitateen partetik benetazko inbertsio erreal bat beharrezkoa da: denbora, dirua eta pertsonak. Guzti hau ondorengo honetarako:

- Entitateen plan estrategikoen oinarritzko ardatzak, ikuspegia, misioa eta balioak berplanteatzeko.
- Zelan lan egiten den, rolak eta funtzioen banaketa, lan ezberdinei ematen zaion balioa, norentzat doazen beti merituak, promoziorako bitartekoak eta honek karrera jasangarri bat sustatzen duen... aztertze.
- Gizarte esku-hartze feminista eta interseksional bat eraikitze (marko teorikoa eta erremintak) bizitzaren jasangarritasuna ardatz izango duena.

Prozesu guztia hauek gainbegiratuak izan beharko lirarteke, entitate, dispositibo eta profesional feministengatik, kalitatezko filtro zorrotz eta zehatzen bidez.

Profesionalek indarkeria matxisten eta feminismoaren inguruko ezagutzak izan beharko lituzkete, ez bakarrik emakumeekin eta indarkeriarekiko arretan lan egiteko, baizik eta esku-hartzeko kolektibo guztiekin.

Formakuntza eta erremintak beharrezkoak dira:

- Formakuntza: jarduera profesional bera eta indarkeria matxisten eta feminismoaren aurreko jarrera hartze pertsonalaren berrikustean oinarritutako kontzientziario prozesu bat suposatuko lukeen formakuntza bat eskatzen du. Formakuntza honek profesionalak gaitu beharko lituzke entitateetan, lan taldeetan eta euren dinamiketan eragin ahal izateko, baita laguntzen dituen pertsonekin agin beharreko esku-hartzean ere.
- Erremintak: profesionalek bere esku izan behar dituzte ikuspegi feminista eta interseksionalitatea aurrera eramatea erraztuko luketen erremintak. Horretarako, modu eraginkorrenetarikoa bat entitate berak "ad hoc" sortutako instrumentuak izatea izan daiteke, profesionalen parte hartzearekin burutzen dituzten jardueretarako.

Gizarte esku-hartze feminista baten eraikuntza praktika pertsonal eta profesionera lotuta egon behar da. Esku-hartzen dugun errealitatearekin, emakume profesional zein lan egiten dugun emakumeekin, lotura zuzena izan behar du. Ez da ulertzen esku-hartze estandar baterako, praktikatik urruntzen den eta orokortasunerako marko teoriko-praktiko bat sortzea. Ikuspegi pluraltasunak, kolektiboen aniztasunak eta indarkerien interseksioak, abiatzeko oinarrizko elementuak izan behar dira.

Pertsona profesionalek feminismoa sustatzeko oinarrizko paper bat daukate gizarte esku-hartzearen eremuan. Lan honek, beste gauza batzuen artean ondorekoa dakar:

- Nor bere burua aitortu, eta kanpora begira aitortu beharra ere, eraldaketa eragile, gizarte esku-hartzearen motore bezala eta entitateen benetako aktibo bezala egiten den lana.
- Euren burua eremuaren eraldaketarako gakoak dituzten jakituria eta ezagutzaren jabe bezala ikustea.
- Autoezagutza prozesu bat burutzea. Emakumea euren nortasunak, euren errealitatean gurutzatzen diren zapalkuntzak, beste emakumeekiko pribilegioak identifikatzea eta feministak bezala lerrotzea. Gizonak pribilegio egoeran kokatzen dituen guzti hori begiratzea, islatzen duten ereduak, euren rola aurrera eramaten duten horrekin eta euren funtzio entitateetan eta eremuan orokorrean.
- Marjinetako emakumeen aktibazioa eta lidergotza bultzatzea interseksionalitatean oinarritutako esku-hartze baten egile bezala.

Entitateek feminismoa hartu beharko lukete erreferentzia marko bezala, eta indarkeria matxistaren aurrean, beste zapalkuntza sistemen aurrean duten jarrera irmoa bezala (pobrezia, xenofobia edo arrazakeria kasu), honetan ere izan beharko lukete.

Jarrera hartze honek, inplizituki, sistema patriarkalaren parte garena onartzea dakar eta, ondorioz, gainbegiratze lan integral bat daukagula ere bai. Indarkeria matxistak eta emakumeen kontrako indarkeriak, ez dituzte bakarrik lan egiten dugun emakume horiekin, baizik eta entitateetan lan egiten duten emakume profesionalek ere, baita normatibotasunera mugatzen ez diren pertsona guztiak ere bai. Honek esan nahi du ezinbestekoa dela entitatez-entitate ematen diren indarkeria matxista guztiak identifikatzea eta honek dakarren guztia.

Entitateei berdintasun planekin ez konformatzeko deia egiten zaie. Erreminta on bat izan daitezke, baina bat gehiago besterik ez, ez helburu bat bere zerean, eta dudarik gabe feminismitik abiatu behar da. Beste gauzen artean, ondorengoia sustatzeko deia luzatzen zaie:

- Indarkeria matxisten kontra, berdintasunaren alde eta kontzientziazio feministarako formazioa bideratutako jarduerak ordutegi barruan egon daitezen.
- Aurreko edozein ekintzatan ardurak hartzeak ez dezala funtzioen gehikuntza ekarri, horrela horretan diharduten profesionalak ez sobrekargatzeko.
- Lagundu, baloratu eta aitortu dadila eremu horietan egiten den lana.
- Pertsonak entitateen aktiborik garrantzitsuen bezala baloratzea.
- Bizitzaren jasagarritasuna entitate bakoitzaren oinarritzko balioa izan dadila.

Entitateei dagokionez, indarkeria matxisten eta euren dimenzio ezberdinen (estrukturala, kulturala eta zuzena) identifikazio, ikusarazte eta desaktibazio lan bat egitearen beharra ikusten da.

Jadanik, entitateen egitura laborean gorpuzten diren indarkeria matxistei egin diegu erreferentzia, horietako batzuei. Indarkeria matxisten biktimekiko esku-hartzeari dagokionez:

- Indarkeria matxista guztiak kontutan hartuak izan daitezen gizarte esku-hartzerako marko zabalagoa sortuz: indarkeria matxistak pairatzen dituzten pertsona guztiei, salbuespenik gabe, arreta ematea.
- Indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien zerbitzu guztiak gainbegiratu daitezen, interseksionatzen duten indarkeria guztiak kontutan izan ditzaten, emakumeen eta adingabeen eskubide guztiekiko erabateko errespetuaz gain.
- Ez dadila urgentzian oinarrituta lan egin: esku-hartzearen erdigunean pertsonak jarriz eta ez prozedura edo zerbitzuen funtzionamendu egokia.
- Esku-hartzeari begirako kompetentzien eskuratzea sustatu dadin, ez bakarrik estandarizatutako esku-hartze protokoloak, laguntzak eta zerbitzuak kontutan izanik, baizik eta ikuspegi interseksionalean sakonduko duen arreta gizarte esku-hartze feministan jarri dadin.
- Prebentzioaren kontzeptua gainbegiratu dadin, osasunaren, tratu onaren eta bizitza onaren sustapenari lehentasuna emango dion ulertzeko modu batera, pertsona, kolektibo eta lan eremu guztietara zuzenduta.
- Indarkerien inguruan egiten den lana gainbegiratu dadila, horren abiapuntua emakumeen eta adingabeen eskubideekiko errespetua izan dadin eta pertsonen askapenerako bidea sustatu dezan.
- Esku-hartzea bera gainbegiratu dadila estrategiatzat enpoderamendua hartuz, horren dimentsio soziala kontutan hartuz eta ea errazten den ala ez. Eta emakumeekiko esku-hartze honi paralelo, komunitatearekiko lana.
- Praktika onak identifikatu eta elkarbanatu daitezen eta praktika txarrak berbideratzeko esfortzua egin dadila.

Indarkeria matxistei arreta ematen dioten eta prebenitu eta horien kontra kontzientziatzen duten entitate, zerbitzu, programa eta proiektuen alde, modu erabakiorrean apustua egiten dutenen aldeko apustua egitea beharrezkoa da.

Osoatasuneko Legeari dagokionez, Marta Doladoren aportazioak txertatzen ditugu lehen eranskinean.

Gizarte esku hartzearen sektorea sektore bezala jardun behar du, profesionalen izate zentzua indartuz. Alderdi bezala indarkeria matxisten kontrako jarrera hartu behar du eta bere burua

zilegitzat hartu gai honen inguruko eragile eraldatzaile bezala. Feminismoa erreferentzia markotzat hartuz egin behar du eta indarkeria matxistak desagerrarazteko lan egin. Horretarako:

- Balioan jarri indarkeria matxisten inguruan egiten den lana: praktika onak identifikatuz, prebentzioarekin eta idarkeriarekiko arretarekin lotutako eremuetan ekarpenak eginez.
- Gure burua eremu aholkulari bezala zilegitu materia honetan, baita indarkerien kontrako lana burutzeko ezinbesteko eragile bezala.

1 Eranskina: Marta Doladoren ekarpena Osoko Legearen inguruan

Ezinbestekoa iruditzen zaigu Marta Doladok helarazitako hausnarketak txertatzea oinarrizko elementu bezala txosten honetarako:

- 1.- Emakumeen kontrako indarkeria generoan oinarritutako Giza Eskubideen abusu bezala defendatua izan behar da.
- 2.- Giza Eskubideen urraketen aurrean Estatuaren “behar bezalako ardura”-ren printzipioa jaso beharra dago.
- 3.- Legearen ikuspegiak emakumeen boteretzea sustatu behar du, eskubide subjektu bezala, eta edozein motatako berbiktimizazioa akidin.
- 4.- Errekurtso eta neurri ezberdinetarako sarbide eraginkorrei begira diskriminazio anitzak hartu behar dira kontutan.
- 5.- Legearen inplementazioarekiko ebaluazio iraunkorrerako erremintak sortu behar dira.

Orokorrak

- Terminologia beran OINARRIZKO ZERBITZUAK terminoarekin topatzen gara, biktimen eskubideak, segurtasuna eta ongizatea barnebiltzen dituenak. Praktikan ongizatea ez da inon ez jasotzen, sistema eskubideak (batez ere erasotzaileenak, gure tradizio penala dela eta) eta segurtasuna bermatzera bideratuta dagoelarik. Ongizatea ez da kontzeptu juridiko bat.
- Ekonomian oinarritutako indarkeria ez da genero indarkeriaren barnean barnebiltzen, baizik eta tratu txar psikologikoan.
- Fiskaltzak biktimaren alde egiten du, baina soilik arlo formalean. Errealitatean Estatuak ordezkatzen du, biktimak ez ditu ez ikusten ez entzuten, ahozko bistan egiten dena.
- Kalte-ordain ekonomikoa gaizki ikusita dago eta errealitatean, gaur egun, ez dago erreparazio publikorako mekanismo eraginkorrik.

Prebentzioari dagokionez

- Ez dira Emakume Elkarleen iritzi eta ekimenak kontutan hartzen eta zerbitzu juridikoen hornitzaileak ez dute genero indarkeriaren inguruko formakuntzarik ez kontzientziatorik.
- Ez dira zehaztu ezta urrunetik ere genero indarkeriaren prebentzioan lan egiten duten erakundeen tolerantzia zero politikaren austeak ekarri beharko lituzkeen zigorrak.
- Erasotzaileen kontu-emate beharrak ez da ezta teoriarik aurreikusten.
- Gure zuzenbide sistema penalak ez du bermatzen biktimaren parte-hartzea ikerketa edo prozedimendu judiziala egokia den ala ez ezartzeko erabakian: edo salaketa jartzen du edo ez du egiten.

Lehen kontaktua salaketa jartzen duen pertsonarekin:

- Erabilgarritasuna ez dago bermatuta anistasun funtzionala duten emakumeentzat. Salaketa ez da burutzen biktima dagoen tokian eta ez zaio berehalako itzulpen zerbitzurik ematen.
- Ez da berehalako laguntza psikologikorik ematen eta ez da existitzen espaziorik adingabeak salaketatik kanpo gera daitezen.
- Biktimak ez du prozesuaren inguruko erabakirik, aurrera doala edo ez bere baimenik gabe. Urruntze neurriak ezin dira ez aldatu ez bukatu berak nahi izatekotan, eta apurtzen baditu biktima bera bilakatzen da delitugile.
- Ekintza polizialak ez dira konfidentzialak, eta ez dute informaziopeko baimenik exijitzen. Biktimari ez zaio esaten atestatua edozeinek, eta batez ere erasotzaileak, ikusi dezakeela.

Ikerketa judiziala

- Ez dauka erabateko lehenetsunik eta kalte fisikoak ikertzera mugatzen da, psikologikoak alde batera utzita.
- Argiketa polizialak, oso denbora laburrean burutzen dena, ikerketa polizialaren dokumentu bakarra da kasu gehienetan.
- Erantzun judiziala ez da biktimaren ongizatean oinarritzen, baizik eta automatizatuta dagoen prozedimentu beran.
- Biktimak eskatzen zaion aldi guztietan deklaratu behar du, honek bere gain duen efektua garrantzirik izan gabe.
- Biktimen seme-alabak ez dira kontutan hartzen.
- Salaketaren harrera eta bestelako ekintza guztiak, kasu bakoitzera egokitzen ez diren prozedimendu eta ereduaren bitartez egiten da.

Epaiketa aurreko prozesuak

- Biktima batek igaro behar dituen edo martxan dituen prozedimendu ezberdinen arteko koordinazio falta dago. Ondorioz ezin du behar bezalako informazioa eduki, ezta epaitzen duen organoak ere ez, bere familia mailako egoera ezberdinen inguruan.
- Prozedimenduarekin ahalik eta bizkorren bukatu ahal izateko biktima presionatu egiten da kargu txikietan oinarritatuko kondena onartu dezan.
- Biktima presionatu egiten da salaketa kendu dezan indarkeria psikologiko edo ekonomiko kasuetan.
- Bere sinesgarritasuna salaketa bera baino lehenago ikertzen da
- Praktikan, biktima kondenatu egiten da aldebiko indarkeria dagoenean, defentsa propioa kontutan hartu barik.
- Ofisiozko turnoari dagokion doako defentsa baldintza mugatzaileekin ematen da.
- Familia zuzenbideari dagokien gaiak ez dira behar bezala ikertzen.
- Gure zigor-sistemak ez du errazten frogaren karga bakuna izatea kasu hauetan, baldintza zorrotzak eta interpretaezinak eskatuz biktimaren hitza kargurako froga nahikoa izan dadin.
- Inguru judiziala ez da lagunkoia, biktimaren salaketa seriotasunez hartzetik urrun dago eta beti igaro behar du sinesgarritasunaren filtroa. Paternalismoa tratatzen zaie.
- Kasu askotan, euren erasotzailearen kokapena ezagutu dezaten galarazten duen koordinazio falta dago.

Entzutegi judizialak

- Entzutegi aretoaren ingurugiroa ez da atsegina.
- Bionboa, edo erasotzailea ez ikusteko bestelako segurtasun neurriak murriztaileak dira, eta soilik erabiltzen dira biktimaren abokatuak eskatzen baditu.
- Ez zaio biktimari informatzen epaiketa atea itxita-izan daitekenaz.
- Biktimaren edozein deklarazio, bere egoera pertsonala, aurrekari mediko eta psikologikoak edo beste edozein egoera, publikoak dira. Bere testigantza ikus-entzunezko bitartekoen bidez grabatua izaten da.
- Ez da biktimaren estresa ekiditeko neurririk hartzen: atzerapenak, epaiketak bertan behera uzteak, bapatekotasunak ematen dira, ez zaio galdera erasokor edo gaiztoetaz babesten, bere sexualitatearen, tratamendu medikuen, psikiatrikoen eta abarren inguruko galderak erantzun behar ditu... bere deklarazioa deuseztatzeko balio dezakeelako.
- Ez da bermatzen zigor arautegia genero estereotipoetan oinarrituz interpretatu daitezen.
- Ez da bermatzen biktima zigortua ez izatea etxetik ihes egitearen edo seme-alaben segurtasuna bermatzeko hartu ahal dituen aldebakarreko erabakien ondorioz.
- Ez da bermatzen euren aitekin arazoak dituzten adingabeak indarkeriaren biktima edo testigu izan daitezkeela.

Segurtasuna eta babesa

- Ez da biktimaren segurtasuna bermatzen, ez epaiketaren aurreko jardueretan ezta ondorengoetan ere. Erasotzaileak ez daude kontrolatuta, baina biktimak bai eta segurtasun dispositiboa zigorrarekin batera bukatzen da.
- Biktimiek ez dute kalte-ordainik jasotzen zerbitzu juridikoen ematea ezeztatzen, murrizten edo atzeratzen denean, ezta eremu judizialean neglijentziaren bat gertatzen denean ere.
- Genero indarkeria dela eta zigortutakoetan birgaitze terapiak duen benetako eragina ez da ebaluatzen, ezta berrerortze probabilitatea ere.
- Ez da aurretiazko salaketarik gabeko babes neurririk existitzen.
- Arriskuen balorazioa ez da biktima eta erasotzaile bakoitzaren arabera egiten, baizik eta prozedura automatikoen bidez.
- Segurtasunaren planifikazioa biktimaren kokapenean oinarritzen da, eta ez erasotzailearenean.

Laguntza eta asistentzia

- Biktimari ez zaio informazio zehatz, praktiko eta nahikoa bermatzen. Prozesu penala bukatzean biktimarekiko laguntza judiziala bukatutzat ematen da.

Komunikazioa

- Hizkuntza judiziala ulergaitza da eta beregana heltzea zaila da, baita gaztelania ez den hizkuntza batera.
- Ekintzak ez dira konfidentzialak.
- Behin zigorra beteta ez dago inongo jarraipenik.

Organismo judizialen arteko koordinazioa

- Epaitegi bakoitzak bere prozedura propioak ditu, eta zaharra bezain ez-eraginkorra den burokrazia batengatik kaltetuta dago.
- Ez da genero ideologiarik existitzen eta biktimak lekuko soil bezala tratatuak dira.
- Ez da konponbide egoki baten kontzientzia existitzen, bakarrik prozesuen zenbatekoa eta zigorren kopurua.

2 Eranskina: Teresa San Segundoren ekarpena Osoko Legearen inguruan

GENERO INDARKERIARI DAGOKION PROPOSAMENA

- **Prozedura zibilen legearen 416. artikulua aldaketa**

Arau hau ez dago egoera hauetarako pentsatuta, ezkontidea, beste batzuen artean, deklaratzeko beharretik kanpo dagoela ezartzen baitu, eta instrukzio epaileak lekukoa ohartarazi behar du ez duela akusatuaren kontra deklaratzeko betebeharra. Honek emakume asko ez deklaratzera eragiten du, lekuko izateaz gain bere bikotearen biktima ere diren emakume asko, alegia.

- **Komunikabideen aldetiko kudeaketa informatibo hobea**

Ezinbestekoa da kudeaketa hobea bat komunikabideen partetik, terminologia egokia erabili dezatela, berriaren jarraipen egoki bat egin dezatela ezarritako zigorraz informatzen eta, kasu larrietan, kartzela irteeraren informazioa ere eman dezatela.

- **Parekidetasuna sustatzea hezkuntza maila guztietan.**

Hezkidetzatza da genero indarkeriaren kontrako lehen urratsa. Ez da bakarrik tailer edo hitzaldiak burutzea, baizik eta kurrikulumean, gaitegian eta ikasketa planetan integratzea.

- **Segurtasun indar eta instituzio ezberdinen arteko kooperazioa handitzea**

Koordinazio falta babesgabetasunera eramaten du kasu askotan. Koordinazio hau, ez da bakarrik erkideko bakoitzaren barruan burutu behar, baizik eta beste erkideko autonomikoen artean ere bai.